

uk

257. zenbakia / 2014ko irailaren 24a



YOGA ikastaroa EUSKARAZ

egizu.org
euskaraz
Urriaren 10era arte
eman izena

Egur-taila ikastaroa Urritik-Urtarrilera



Urriak 13 | 18:30

Non: Aldai patronatuan (Itxasgane)
Karitate kalea 1, behea
Noiz: urritik-urtarrilera astelehenero,
18:30-20:30
Prezioa: 120€
*Berbalaguna edo Bizarra Lepoan
Euskara elkarteko kidea bazara 90€
Izena emateko: 619 935 541

egizugetxo@gmail.com
Info+: www.egizu.org

URRITIK-EKAINERA

NOIZ: ASTELEHEN & EGUAZTENETAN
ORDUTEGIA: 19:30 - 21:00
NON: SAN NIKOLAS ikastolan (Algorta)
PREZIOA: HILEAN 32€ / 27 € Berbalagun, Bizarra
Lepoaneko bazkide eta ikastolako kideek
IZENA EMATEKO: egizugetxo@gmail.com /
619 935 541 (Urriaren 10era arte)

Urriaren
15ean
hasita!

egizu.org



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate,
Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILAK: Jorge Perez, Bittor Egurola, Armando
Llamas, K. Olete, Amaia Ariaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso
Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 UDALA
 Erandioko Udala	 Sopelako Udala
 Urdulizko Udala	 Plentziako Udala
TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO HEZKUNTZA, LEHIAKETA POLITIKA ETA KULTURAREN SAHIA Bilbo, 01. 48900. Telefono: 944 911 337 010401. BARRUTIA: DEPARTAMENTO DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURAL Euskara Zerbitzua de Politika Lingüística
 Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA. Uribe Kostako PTP-aren Aurkako Asanblada
5. IRUDIA. Udagoiena gurean...
6. FACEGUK. Zer asmo duzu udagoienarako?
7. LEHEN ETA ORAIN. Telletxe kalea (Algorta), 1950.
8. URIBITAKORA. Arrate Illaro Etxebarria.
9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. ELKARRIZKETA. Susumu Tezuka.
11. ERRETRATUA. Ruth Justiniano "Mey"
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20.
Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxoko Folk Jaialdia.
28. ARGAZKIA. Ereaga Neguritik, 1935.
30. BERBETAN. Mikel Lejarza Bilbao.
34. FOTOGRAFIA. Ander Ormaetxea.
40. SAKONEAN. Goazen gudari danok erakusketa Erandion.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Astea.
43. MUSIKA. Kosta Fest jaialdia Sopelan.
44. LIBURUAK. Madelon Sariak.
45. KIROLAK. Larrinaga anaiak, boxeolariak.
46. JENTILKOKA. Lamiak.
47. EUSKARA eta ERAKUNDEAK. Euskararen sustapena eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Ogitarteko min-mina.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Urduliz Rugby Taldea.
54. AITORMENAK. Xabi Hoo, Enkoreko abeslaria eta gitarra.

Azala: Ander Ormaetxea

www.ukaldizkaria.biz



30 Mikel Lejarza Bilbao

Berbetan

Saltito eskola-ontziko kapitain da algortarra 2003tik, bere egitekoez eta itsas-bidaiez berba egin digu...



11 Ruth Justiniano "Mey"



10 Susumu Tezuka

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Uribe Kostako PTPren Aurkako Asanblada

Tosuko erresistentzia akanpada

Orain dela 50 urteko gure herriko argazki bati begira jarriko bagina, zenbatek ezagutuko luke begibistan duena? Zenbatek jakingo luke bere herriari begira dagoela? Garapen jasangarriaren izenean, berez ondorengo belaunaldien garapena eragozten ez duena dela, hainbestearinokoa izan da herriok jasan behar izan duten itxuraldaketa eta “garapena”...

Eta ez naiz ari herriko kalei buruz bakarrik: Iñaki Petxarromanek *Lurra zorua bailitzan* liburuan dioskunez, egunero 1,23 hektarea lur natural hondatzen dira EAEn; 3 hamarkada eskasetan hirukoiztu egin da Hego Euskal Herriko lur urbanizatu eta artifizializatu; berotegi efektua sortzen duten gasen isurketa %47 handitu da Euskal Herrian 1990etik gaur egun arte; 900 kilometro inguru autobide eta autobia daude Euskal Herrian: Karrantzatik Baionara 233 eta Donostiatik Tuterara 185 kilometro daudenean. Kilometroekin jarraituz, aipagarria da gurean elikagaiek batez beste egiten dituztenak: 1.600 kilometro, ekoizten den lekutik kontsumitzen den lekuraino iristeko. Aipagarria, kontsumo “jasangarri” horren isla, planetako herritar denak gu bezala biziko balira, Lurraren tamaina bereko hiru planeta beharko lirateke.

Historia osoan baino hiru aldiz gehiago hondatu dugu lur naturala azken 30 urteotan. Eta Getxo ere ez da salbuespena arazo honi dagokionez; lehengora itzuliz, getxoztar askok ez luke duela 50 urteko Aldapako argazki bat ezagutuko; edo ez luke jakingo Gobela inguruko uholdeak hain aspaldikoak ez direnik, ezta Erromon ortuak egon zirenik ere. Oraingoan gure herria itxuraldatuko lukeen proiektu berria dugu Ibarbengoa Metro geltoki ondoko parking erraldoia (Ingurumen Kaltearen Txostenik ere ez duena), non eta Tosu estartan, zeinetan gazte batzuek urteak daramatzaten ba-



ratze komunitario baten proiektuan buru-belarri lanean.

Hau ez da ordea gazte batzuen eta parkina eraiki nahi dutenen arteko aferra hutsa, bi mundu ikuskera kontrajarriren arteko talka baizik: lekuan lekuko kontsumoaren eta mugikortasunaren artekoa, nekazaritza ekologikoaren eta monokultibo industrialaren artekoa, auzoen nortasuna mantentzearen eta uniformizatzaile den porlanaren aldekoaren artekoa... Fi-

nean, benetako jasangarritasunaren aldekoen eta bizitzeko Lurra halako hiru planeta beharrezko direla deritzotenen arteko talka.

Garapen jasangarriak txikizio handiak eragin ditu gurean, eta makinek utzitako olio-orbanak gehiago hedatu ez daitezzen, etsipenak jan ez gaitzan, Ibarbengoa parkingaren aurkako erresistentzia-akanpada antolatu dugu irailaren 1etik aurrera Getxoko Tosu estartan. Akanpadak izaera iraunkorra du, hau da, proiektua bertan behera geratu arte egongo gara bertan eta aldi berean, elkar ezagutzarako, autogestiorako eta erresistentziarako aldarria izaten ari da. Ekintza ugari antolatu ditugu: hitzaldiak, mahainguruak, eztabaidak, bertso-afariak, kontzertuak, e.a.

Lerroetatik erresistentzia oihu honekin bat egiten duen orori dei egiten diogu Tosura kanping dendarekin bertara dadin, porlanaren gainetik nekazaritza defendatzera, etorriko diren belaunaldiak duela 50 urteko Getxoko argazki bat behingoz ezagut dezaten! ○

gu geu

Amaitu eta hasi

Amaitu dira oporrak, joan da uda... ondo etorri udagoiena!

Hasi da ikasturte barria batzuentzat, urteko azken sasoiak beste hainbatetat... Eta lehenago ez egindakoak, egiteko utzitakoak, egin bakoak eta egin beharrekoak, aurreikusten ditugunak, egin gurako genituzkenak... pilatzen ari zaizkigu daborduko! Hau don/k hau hasteko modua, hau!

Hala ere lasai, batek dioen legez, “ez daiela panikuek kundidul!”; uda sasoiaren energiaz asetu ditugu gure buru-gorputzak, eta abendura arte behintzat sasoi ibiltzeko moduan gaude!

Hori bai, irakurle, gomendiotxo bat: gozatu abendura arteko UK-k azkenak bailiran, urtarilean geometria ezberdinakaz jolasean hasiko gara-eta... Geografia bereko betiko bidezidoretatik zein bide barrietatik, zugana heltzeko garraio ezberdinak erabiliz... Izan garenetik, izan gura dugunera, eta izango garenarantz pauso sendoz abiatuz... Irakurle, onti honek ez du itsasoratzerik zure haizea lagun ez badu, eta zure begi-belarriak ez baditu bere portu...

Kareletik portura begira, aitzurrak beharrerako zain ikusten ditugu... Itsasora begira, zuen haize-babes epela igarri ahal dugu... Eta haize alde duzunean zein erraza den gailurrera igotzea!

UK-ko lantaldea




LEIOA, 2014KO IRAILA

Ondo etorri Udagoien! / Gernikako Arbolaren egoeraz arduratzen hasi ei ziren hostoak goizegi jausten hasi zitzaizkiolako... Harenak bakarrik ez, inguruotako zuhaitz gehientsuenen orriak jausten hasi ziren parkeak hustu eta gelak bete zirenean... Agian, umeen hutsunea igarri eta goibeltasunak jota daude zuhaitzak... Eta, udagoienak zer beste ekarriko ete duen? “Abuztuaren aurreneko bost egunak hillenunek. Abuztuko lehen eguneko eguraldia, abuztuaren eguraldia; abuztuaren bigarren egunekoa, agorrenarena; hirugarren egunekoa, urriarena, laugarren egunekoa, azaroana; bosgarren egunekoa abenduarena...”. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Udak udagoienari eman dio bidea, zer asmo duzu urtaro honetarako?




o Algorta

Olibia Martinez

> laborategi teknikoko analista

Ez dut udarik izan, lanean eman dut osoa, eta hemendik aurrera ere horrela jarraituko dut. Hala, udagoiena lanean emango dut, eta horrela jarraitzea espero dut. Bost hilabetez langabezian egon ostean, zortea izan dut eta orain Osa-kidetzan nabil.




o Santurtzi

Kepa Ugarte

> kazetaria

Lan egiteko aukera izan dut udan, txosnetan hainbat turno jan behar izan ditut eta oporrak hartzeko aukera izan dut, familiarekin. Orain, lanean berriro hastea tokatzen da, eta espero dut gauzak bere horretan jarraitzea. Hala ere, ezkontza ere prestatzen hasiko naiz, abendu akabuan ezkonduko naiz-eta.



o Algorta

Alex Legarreta

> ikaslea

Uda honetan mendira joan nahi izan dut, Gorbeara edo, baina lan kontuentzari ezinezkoa izan zait. Beraz, udagoienan tartetxo bat aurkitu beharko dut, astebururen bat edo ihesalditxo bat egitea nahiko nuke mendira.




o Romo

Susana Rocha

> ikaslea

Izan dugun udarekin faltan bota dut hondartza. Hemendik aurrera, berriz, martxa hartu eta gidatzeko baimena atera nahiko nuke, karrera bukatu, praktikak egin eta tartetxo bat dudanean ihesalditxo bat egin.



o Sopela

Maite Bustamante

> jubilatua

Ez zait ezer egiteke geratu udan. Nafarroara joan gara hilabete batez familia osoagaz, oso gustura egon gara eta udaleriko jaiak gozatu dugu. Udagoienan, berriz, antzerkietara joango naiz, asko gustatzen zaizkidalako. Horregaz batera, biloba zainduko dut alabak lan egiten duen bitartean.



o Algorta

Alizia Rodriguez

> begiralea

Udan nahi nuena egin dut, hau da, ezer ez. Horretarako nahi nituen oporrak. Hemendik aurrera, berriz, lanean jarraituko dut, uzten didaten bitartean.



GETXOKO UDAL LEIBURJITEGA



ASERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / TELLETXE KALEA (ALGORTA), 1950

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > itsasoari begira



Ereaga, 2014ko iraila

Testua: **Arrate Illaro Etxebarria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**


* Doinua: aditu laguna itsasoak

Aixerrotatik abiatu naiz oinez Bizkaiko Zubira Ereagan naiz Portu Zaharra gurutzatu ta gutxira, plaierak albo batean utzi ta eseriko naiz, tira! atsedean pixkat hartu dezadan itsasoari begira.

Eguzkizale, surfista eta arrantzaleen gozamen itsasoari kantuan egin zaizkio mila aipamen... azken neguan hasarratuta oldartu zinen, nabarmen zeinen barea dirudizun ta zeinen indartsua zaren.

Baina gaur lasai zaude Kantauri ingurukoak bezela iruditzen zait niri opari bat egin nahian zaudela kresal usaina aurrean eta eguzkiaren epela... olatu batek eraman arte bizi ninteke horrela!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45



Iñaki Aresti Escudero

eskerrik asko, Iñaki!

Urte askoan izan dugu bidelagun Iñaki Aresti Escudero berangoztarra, esker onez eskaini gura dizkiogu agur-lerrok. Irailaren 2an zendu zen Aresti, Iñaki Bitxitegi-ko ugazaba 1966an Villamonten denda zabaldu zuenetik. 50 urte emon zituen bitxigintzan, eta Bizkaiko Bitxigintza Elkar-terko presidente zen. UK 249. zenbakian egindako [Erretratua]n zioenez, “Komer-tziante izateko herriagaz bizi behar duzu,

ez bakarrik jaso, emon ere egin behar da”; berak emondako dan-danak eskertu gura genizkioke: ia 20 urteotan jarritako publi-zitatea, Berangoko txakolineruen eta txakolin-ardaoaren Egunaren gaineko infor-mazioa helaraztea urtero, argazkiak, eta zelan ez, Berangok kostaldea bazuela “go-goraraztea”: “Berangok iparraldean Ingala-terragaz muga egiten du, dokumentuetan agertzen da: Berangoribera...” (UK250) ◊

topaEguna > urriaren 11n, Derion

TopaEguna aurten hurbil, Derion, anto-latuko dute Euskaltzaleen Topaguneak eta Tximintx elkarteko lagunek, Txorierriz zein inguruko eskualdeetako hainbat el-karteren laguntzagaz. Hitzordua urriaren 11rako ipini dute, daborduko egitarau-aren bizkarrezurra prest dute: 10:30ean izango da harrera-ekitaldia, eta 11:00etan Esperientzien Trukeguneko eta Umegu-neko atek zabalduko dira, orduan abiatu-

ko da Euskaltzale gazteen Topaldia ere bai. 12:00etan kanposantutik txangoa presta-tu dute, eta feminismotik ikasteko “Aztar-nak” berbaldia 12:30ean izango da. Kantu jira, batukada, txakoli dastaketa eta larrain dantza ostean, bazkaltzeko ordua... Gero, Kultur gindak, Irrien Lagunak, ekitaldia, Fan&Go-egaz erromeria, elektrotxaranga, eta Zizkamizkak eta Gibelurdinen kon-zertuak izango dira. Ein daigun topa! ◊



Info+: topagunea.eus



Info+: www.urtxintxaeskola.org

ikastaroak > urtxintxa eskola

2014-2015 ikasturterako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dauka hilaren 30era arte Bizkaiko Urtxintxa Eskolak. “Hezitzaileei baliabide pedagogikoak eta ikastaro osagarriak eskaini asmoz, treba-kuntza zabala” eskaintzen du Urtxintxak, hala, aurtengorako besteak beste: Astial-diko Begirale eta Zuzendari ikastaroak, modu intentsiboan (urte betean) edo es-tentsiboan (urte eta erdian) egiteko aukera

izango da Bizkaiko zein Arabako zenbait eskualde eta hiritan, esaterako Getxon; Hezikidetzan aditua, Heziketa premia bereziak astialdian eta Nola sustatu parte-hartzea? hiru ikastarook urrian hasiko dira Bilbon. Horiez gainera, urtarrilean, Hezi-keta premia bereziak eta sexualitatea ikas-tarora eskainiko du, eta urtarriletik mar-txora Kulturarteko hezkuntzaren hastape-netan murgiltzeko ikastaro laburra. ◊

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Susumu Tezuka > Algortako japoniar euskalduna

“Ni euskaraz entzunda harritzen dira, baina horregatik nago hemen”

Aste batzuk daroa Algortan Susumu Tezuka japoniarrak. Osakako eta Tokioko unibertsitatean hasi zen euskara ikasten eta bertara etorri da bide berean sakontzeko eta euskal kultura ezagutzeko. Deustuko Unibertsitatean ikasten du Hispaniar Filologia. Algortako familia batez bizi da apopilo.



Tezuka euskaltegian hasiko da urrian

—Japoniar euskalduna zara, Susumu?
—Bai, japoniarra naiz eta euskaraz dakit, horregatik, beharbada euskalduna naiz. Osakako unibertsitatean euskara klase bat dago eta bertan ikasi nuen euskara urtebetez. Baina gehiago jakin nahi nuen eta Tokioko unibertsitateera joan nintzen eta beste sei hilabetez ikasi nuen euskara han; eta orain hemen. Abuztu akabuan etorri nintzen eta Urretxun egon nintzen astebete lagun bat bisitatzeko. Guztiek hitz egiten zuten euskaraz eta oso zaila zen, baina asko ikasi nuen. Orain Algortan hasiko naiz euskaltegian. Etxe honetan abendura arte biziko naiz eta, gero, beharbada, pisu bat alokatuko dut inguruan. Maiatzera arte geratu nahi dut, ikasturte osoa egin nahi dut, baina nire bisarekin ez dakit posible izango den.

—Gainera, Deustuko Unibertsitatean ikasten ari zara, ezta?

—Filologia hispanikoa ikasi dut Japonian, eta orain, Deustuan, espainiar hizkuntza eta kultura.

—Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

—Hasieratik Donostia eta Bilbo gustatu zitzaizkidan. Duela urtebete bidaian etorri nintzen, egon nintzen Bartzelonan, Madrilen, Sevillan, Santiago de Compostelan, Acorufian eta, ostean, Bilbon eta Donostian. Denak politak ziren, baina batez

ere, Donostia eta Bilbo, oso politak. Lehenengoz entzun nuen euskara; denek esaten zidaten “*kaixo, agur eta eskerrik asko*”; baina nik ez nekien zer hizkuntza zen hura. Baina jende jatorra bizi da hemen eta oso politak dira etxeak, Kontxako hondartzara... toki hau gustatu zitzaidan. Jendea oso jatorra da, alaia, bihurria, batzuk

—Ondo moldatzen zara euskaraz?

—Beno, ondo, baina azkar hitz egiten badute ez diet ulertzen. Jendea harritzen da ni euskaraz entzutean, baina gustuko dut euskara eta horregatik nago hemen; arraroa naiz, bai (barreka).

—Eta zerk harritu zaitu?

—Japoniarekin oso desberdina da hau:

“Uste nuen Euskal Herria lainotuta egoten zela eta fresko zegoela, horregatik ez dut ekarri udako arroparik”

zoroak... Badaukat unibertsitateko kua-drilla, baina hemengo lagunak ere egin nahi ditut. Aste akabuan Urdulizko jaietara joango naiz eta lehengoan Oreka TX-ren kontzertua ikusi nuen: zoragarria izan zen. Aspaldi ikusi nahi nituen eta gero eurekin egon ahal izan nuen; esan zidaten Japoniara doazela datorren urtean.

eraikuntzak oso zaharrak dira; Tsukuba nire herrian, ordea, oso barriak. Gustuko dut janaria: legatza, piper berdeak eta gehien patata tortilla. Egunen batean sushi egingo diet etxekoei. Hemengo klimak harritu nau: uste nuen Euskal Herria oso lainotuta egoten zela eta fresko zegoela, horregatik ez daukat udako arroparik. ○



“Hemen pozik bizi naizen arren, egunen batean bueltatzeko asmoa dut”

Ruth Justiniano “Mey” > Boliviatik... Berangora

Maletak egiteko sasoia izan ohi da uda lagun askorentzat: egunerokotasunagaz apurtzeko grina, leku barriak ezagutzeko gogo... Ruth Justiniano “Mey” berangoztarrak ere maletak egin ditu uda honetan, baina ez da leku barrien bila joan. Sorterrira bueltatu da, Boliviara, hilabeteko bisita egitera. Hunkitu da bidaia gogoratzean: “*nire hiria, Santa Cruz, oso ezberdin topatu dut: etxeak, kaleak, nire familia bera... Ni ere seguruenik pertsona ezberdina izango naiz*”. Orain hamar urte heldu zen Euskal Herrira, bere nebak animatuta. Hizkuntzak ikasten zituen unibertsitatean, baina planak aldatu ziren: “*Ordura arte ez zitzaidan inoiz bururatu atzerrira joatea, baina han ez nuen esperantzarik lana topatzeko. Urte bi kanpoan egoteko asmoa nuen, baina... bidaia luzatu da!*”. Hasieran kultura barri batera egokitzea kostatu zitzaion: “*Batez ere eguraldiagatik... hau hotza! Eta hori apirilean etorri nintzela, kar-kar!*”. Gaur egun Berangoko Lantzarteko labean egiten du lan; zazpi urte daroaz bertan: “*Nork esango zidan niri okindegi batean egin behar nuela lan! Oso gustura nabil, herri erdia ezagutu dut hemen*”. Hala ere, Boliviagaz lorura mantentzen du. Ia egunero egiten du berba bere alaba eta gainontzeko sendiagaz: “*Hemen pozik bizi naizen arren, egunen batean bueltatzeko asmoa dut*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Emakumeak, jabetuz eta ikasiz

Jabekuntza Eskolan 15 ikastaro eskainiko dituzte ikasturte honetan, hainbat **gairi buruzkoak**; izena emoteko **azken egunak** dituzu eta **hasiera-hitzaldia** egingo da **urriaren 7an**

Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikastaro barrien barri emon dute; aurten 15 egingo dira, hainbat ildo eta gairi buruzkoak. Ikastaro batzuk udagoiengan egingo dira, gainontzekoak udabarran; izena emon behar da Herritarren Arretarako Bulegoetan. Gainera, urrian hitzaldiak egingo dituzte eta erakusketa bat izango da Algortako kultur etxean.

Zazpi ildoren barruan kokatzen dira 15 ikastaroak. 'Komunikazioa' ildoaren barruan dago *Aktibatu zure ahotsa!* eta Zahira Montalvo Herrerok emongo du (urriaren 25ean eta 26an). 'Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna' ildoaren baitan, barriz, hiru ikastaro egingo dira: *Nire mugak sentitzea* (Itziar Gandia Quintanilla irakaslea, urtariletik martxora), *Sustraiak eta fruituak. Emakumezkoen genealogia* (Patricia Verdes Gimenez, urtariletik martxora) eta *Maitatzen ikasten* (Itziar Gandia Quintanilla, urritik maiatzera).

'Elkartasuna eta elkartrukea munduko emakumeekin' ildoan, ondokoak: *Jabekuntzarako kultura arteko gunea* (Cony Carranza Castro, urtariletik maiatzera) eta *Emakume beltzak Euskadin: nortasunak eta jabekuntza* (Jeanne-Rolande Dacogna Minkette, azaroaren 7an eta 8an) ikastaroak egingo dira.

'Feminismoa' ildoan: *Autodefentsa feminista* (Maitena Monroy, azaroaren 28an eta 29an), *Feminismo postkolonialak: ahots disidenteak mugaldeenatik* (Itziar Gandarias



Virginia Imazek emongo du *Generoa, emozioak eta umorea* tailerra

Goikoetxea, urtarrilaren 16an eta 17an) eta *Hirigintza, generoa eta parte-hartzea* (Ane Alonso Mendez, urritik azarora).

'Osasuna' ildoan: *Zaindu geure burua zainduz* (Kontxi Lopez Soria, urritik abendura), *Nire sexualitatea sasoi betean*

“Emakumeen genitalen ebaketaren prebentzioari buruzko erakusketa ipiniko dute urrian Villamonten”

jartzen (Inma Merino de Castro, urritik abendura) eta *Krisiaren ahalmen sendatzailea. Doluak eta galerak* (Kontxi Lopez Soria, otsailaren 13an eta 14an).

'Kultura birdefinitzen' ildoan: *Maitemina euskal literaturan* (Iratxe Retolaza, apiriletik maiatzera) eta *Generoa, emozioak eta umorea* (Virginia Imaz, abenduaren

20an eta 21ean). Azkenik, 'Autonomia suspertuz' ildoan, *Auto-mekanikari buruzko tailerra* eskainiko du Silvia Machok apirilaren 24an eta 25ean.

Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan izena emon dezake. Onartutakoen zerrendak irailaren 29an argitaratu eta matrikula irailaren 30etik aurrera egingo da. Ikastaro guztiak Jabekuntza Eskolaren lokalean egingo dira (Martikoena, 16).

Bestalde, hitzaldi bi egingo dira: urriaren 7an, *Mugikortasun askerako eta segurarako eskubidea. Aldaketa-proposamenak*, eta 8an, *Emakumezkoen genitalen ebaketaren prebentzioa*. Gainera, gai horri buruzko erakusketa ipiniko dute Villamonteko kultur etxean urriaren 1etik 15era. ○

Info+: www.getxo.net/eu/igualdad eta berdintasuna@getxo.net

Topaketa eta prestakuntza Emakume etorkinentzako programa hastear



Cony Carranza Castro soziologoak dinamizatuko du Programa

Urriaren 4an hasiko da Emakume Etorrentzako Topaketa eta Prestakuntza Programa. Getxoko Immigratio eta Berdintasun Zerbitzuek antolatu dute, doakoa da eta zapatu bitan behin egingo dituzte saioak, 11 guztira, 17:00etatik 20:00etara, Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan (Martikoena 16, Algorta).

Udaletik azaldu dutenez, helburua da *“emakume etorkinei beren historiari eta bizi-baldintzei buruz hausnartu ahal izateko topaketarako gunea eskaintzea”*. Baita *“immigratioaren ondoriozko errealitate barriari ekiteko gaitasunak sendotzea eta bizimodu libre eta independenteagoaren aldeko apustuan babeserako sareak sortzea”* ere. Beraz, oinarriak izango dira genero ikuspegia eta parte hartzeko metodologia.

Hainbat gairi buruz jardungo dira

emakumeak: migratio-prozesuaz, amatasuna bizitzeko era berriez, lan-eskubideez, sexualitateaz, indarkeria matxistaren aurkako borrokaz, eta bitarteko publikoek eta pribatuek. Horrela, *“zailtasun, zalantza eta nostalgiak elkarbanatzeaz gainera, poza, ausardia eta helmugak, ametsak eta esperantza barriak eraikitzeke moduak elkarbanatuko”* dituzte. Saio danak burutu ostean eta Programari amaiera emateko, beste emakume etorkin talde batzuek Topaketa egingo dute getxoztarrek.

Izena emon daiteke Herritarren Arretarako Bulegoetan edo udal webgunearen bitartez: www.getxo.net/eu/inmigracion. Esatea umezaintza zerbitzua egongo dela, aurrez eskatuta: 944 660 151 telefonora deitu lekua hartzeko. ○

Info+: www.getxo.net

HERRI PARTAIDETZAREN ORDENANTZA SORTU GURA DU EH BILDU-K

Herri-partaidetzaren ordenantza baten beharraz ohartarazi du EH Bildu udal-taldeak eta, horregatik, prozesu bat abiatuko du: eragile sozialak harremanetan ipiniko da, *“proposamena aurkezteko eta beraien ikuspuntua eta ekarpenak jasotzeko”*; horretarako webgunea ere sortu dute. Taldearen iritziz, *“herri-partaidetzak izan behar du udal-politikaren oinarri, Udala herritarrei ireki behar diegu”*. Horregatik, gainontzeko alderdien jarrera deitoratu du: *“Herritarren partaidetza eta politikaren gardentasuna aldarrikatzen dute, baina atearekin muturrean ematen diete herritarrei”*. Dioenez, uda aurreko *“Osoko Bilkuran aurkeztu genuen proposamena, herritarrekin egin beharreko zerbait noski, gainontzeko alderdi guztiak hitz onak izan zituzten”*, baina *“hitz ustelak, bozkatzeko unean ezetza eman ziotelako EAJ, PP eta PSOEk”*. EH Bildu *“ez da horretan geratuko; guretzat herri partaidetza ekintza politikoaren ardatza da”*.

Info+: getxoudalazabaldu.net

ASTIALDIKO BEGIRALE IZAN GURA DUZU?

Astialdiko begirale ikastaroa antolatu du Bizarra Lepoan elkarteak Urtxintxa eskolagaz batera, beste behin ere, eta izena emon daiteke irailaren 30era arte. 2014ko urritik 2015eko abendura arteko zenbait asteburutan egingo da (200 ordu teoriko eta 120 ordu praktikoa, Getxoko astialdi talderen batean). Prezioa 310 eurokoa da, epeka ordain daitezkeenak: 220 euro 2014ko irailaren eta 90 euro 2015eko irailaren. Euskara elkartearen bulegoan egin behar da matrikula (Martikoena, 16), 09:30 eta 14:00 bitartean. Adinez nagusia izan behar da urtea amaitzerako, eta aurkeztu behar dira: NAN fotokopia, argazki bat eta bankuko abonarea kontu korrontean ingresoa eginda. Edozein zalantza argitzeko: info@bizarralepoan.org eta 944 910 387.

Info+: www.bizarralepoan.org

OKINDEGIA

GOXOA

IZOZKI-DENDA

San Nikolas Enparantza (Andikoetxeko kantoian) ALGORTA

GARAIZAR BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
 Illeta kalea 1 ALGORTA

Auria Diharce Gutierrez > Mara-Mara topalekua

“Elkarren arteko harremanek aurrera egin ahala sarea sortzen da familien artean”



Mara-Marako hainbat kide, Romoko gune barrian (Ganeta, 4)

Mara-Mara topaleku barria zabaldu dute Romon, familientzat, Ganeta enparantzan. Gelditu eta sentitzeko lekua da, elkarrengandik ikasteko gunea. Duela hiru urte sortu zen proiektua Berangon, eta daborduko Romok ere badauka non elkartu. Umeak dituzten sendientzako tailerrak eta bestelakoak eskainiko dituzte, batzuk aste barruan, besteak aste akabuetan. Slow filosofiari jarraiki, gizabanako bezala, familia bezala, pertsona bezala bihotz taupaden erritmoa jaitsi ahal izateko lekua eraiki dute. Auria Diharce Gutierrezek azaldu digu.

—Azalduko diguzu zer den Mara-Mara?

—Familien elkarte da. Bizitzaren erritmoa jaitsi nahi dugu eta gune batean elkartu, denbora elkarbanatzeko elkarren artean eta gure umeekin. Hori da filosofia eta abiapuntua. Elkarren arteko harremanek aurrera egin ahala sare bat sortzen da. Orduan, jendeak loturak eraikitzen ditu eta ez da bakarrik sentitzen. Izan ere, askotan, ume txikiak izan, baina adin bereko umerik duen ezagunik ez badago, kalean bakarrik egoten dira gurasoak. Elkarbanatzeko gunea izanda, barriz, sarea

sortzen da, elkarri aholkuak emoten dizkiote eta elkarrengandik ikasten dute. Taldeetatik proiektu barriak sortzen dira, e.a. Horregatik etorri gara Romora, eskualde bakoitzean horrelako topagune bat egotea nahi genukeelako, izan Mara-Mara edo beste bat.

—Zer eskainiko duzue Romon? Zer egin daiteke bertan?

—Aste barruan familia-gunea daukagu goizero, 09:00etatik 14:30era, eta Mara-Mara Txiki esaten diogu; izan ere, urtebete eta 5 urte bitarteko umeak dauzkaten

familiei zuzenduta dago, elkarrekin egon daitezke gunean. Bartzelonatik hartu nuen ideia, han horrelako guneak dauzkate-lako. Asteburuetan, barriz, ekintzak egingo ditugu, bai familia guztia batera, bai umeak eta helduak bakoitza bere aldetik.

«Aste barruan eta asteburuetan egingo ditugu ekintzak»

Hau da: elkarrekin egin nahi ditugu ekintzak, baina badakigu ekintza batzuk helduek zein umeek bakoitzak bere aldetik gauzatu nahi dituztela. Beraz, erraztu behar dugu hori.

—Zeintzuk izango dira ekintzak?

—Hainbat dira, batez ere masajea eta jolas egiten dugu. Eta bestelakoak: eskulana birziklatzearen inguruan, musika arloan soinuaren lorategia, txiki-sukaldaritza, e.a. Azken horren barruan ohiko sukaldaritza eta makrobiotikoa egingo ditugu. Mugimendua ere landuko dugu: ez gara sartuko psikromozitatean, baina bai landuko dugu dantza, familia... Eta hazkuntza-talde bat ere osatu nahi dugu. Bestalde, urtebetetzeak ospatzen ditugu, baina ez ohikoak: urtebetetze sortzaileak dira, oso lasaiak. Umeek tailer lasaiak egiten dituzte eta askaria guk egiten dugu, etxekoa da. Gainera, helduentzako formazioa egin nahi dugu: aste barruko gunean material bereziak lantzen dira, auto-didaktika arlokoak; bada, horrelako formazioa ere egongo da familientzat eta eurekin lan egiten duten profesionalentzat, material bereziak eta zehatzak. Asteburuko ekintzetan 12 urte arteko umeak dauzkaten familiek ere parte har dezakete. Edozein ekintzatan parte hartzeko gurekin harremanetan ipini: 656 771 764 eta info@mara-mara.com. ○

Itzubaltzeta gaztetxearen urteurrena **irailaren 26tik urriaren 5era: hamar urtez Romoko kaleak gaztetuz!**



Santa Eugenia plazan izango dira ekitaldiak

Hamar urte igaro dira Romoko Erreka-gane kaleko eraikin zahar bat gaztetxe bihurtu zutenetik, eta ospatzera doaz! Irailaren 26tik urriaren 5era ekimenez beteko dute Santa Eugenia plaza itzubaltzetarrek.

Ekitaldi batez hasiko dira 26an, 19:00etan, jarraian presoan aldeko elkarretaratzean parte hartzeko; gauean bertso-afaria egingo dute. Zaturako trukeazoka eta Bingo Show prestatu dituzte, eta domekarako tortilla-txapelketa eta film laburren emanaldia.

Astelehenean fraking-ari buruzko hitzaldia izango da eta, martitzenean, iraila amaitzeko, desobediencia-tailerra. Hori

dena gitxi balitz, urriko lehen astean ere egingo da zertan parte hartu. Hilaren 1ean, eguaztenean, mahaingurua egingo du Eratu koordinadorak. Hurrengo egunean antzerkia egingo da eta, barikuan, hilaren 3an, herrien arteko olinpiadak eta kontzertuak: Zein da zein, Striknina eta Zizka mizka taldeek joko dute.

Baina bigarren zapatua izango da egun handia: txiki-gunea, poteoa, bazkaria, mus-txapelketa, karaokea, pailazoak, batukada eta kontzertuak antolatu dituzte: Iheskide eta Siroka taldeek girotuko dute jaia. Lasai amaitzeko, barriz, domekan kantautoreek abestuko dute. ○

UTOPIAN ESKOLAKO IKASTARO BARRIAK

Utopian eskolako antzerki, perkusio eta dantza ikastaroak hasiko dira. Diziplina desberdinetan hainbat ikastaro emongo dituzte, parte-hartzaileen mailari egokitutakoak. Umeentzako eta gazteentzako ekimenak ere egingo dituzte, aipatu diziplina berekoak. Gainera, asteburuko tailer berezituak izango dira ikasturtean zehar: jendaurrean hitz egiteko antzerki-teknikak, argazkilaritzaren oinarriak, sukaldaritza eta estresaren kudeaketa. Aipatzea perkusio alorrean Getxo Samba Skull taldean parte-hartzea doakoa dela (egunero elkartuko dira). Errotatu industrialdean dago Utopian.

Info+: www.utopiangetxo.com

JONE SAITUAREN ERAKUSKETA ALGORTAN

Margo akrilikoak erakusten ari da Jone Saitua algortarra *Espresio* erakusketan. Margo bakoitzean emakume bat ageri da eta sorpresa, tentazioa, barealdia eta ekintza irudikatzen dituzte, zuri-beltzean. Koadro handiak dira, 125x120 zentimetrotakoak. Mihiserik ez du erabili, baizik eta berak sortutako euskarriak, poliestirenozkoak. Urri akabura arte ikus daitezke koadroak Getxoko arte gunean (Algortako etorbidea, 76-B).

Info+: **Mendibile kalea, 3**

URRIAN, ANTZERKI JARDUNALDIAK

Urri erdialdean izango dira Getxoko Antzerki Jardunaldiak, aurten 52. edizioa. Aurrerapen gisa doaz iragarritako antzezlantako batzuk. Urriaren 11n, *Potologuak* obra (Txintxeta taldea), 20:00etan; hilaren 12an, *Opera abeslaria* (Deabur beltzak), 18:00etan eta umeentzat; urriaren 18an, *Cabaret Chihuahua* (Teatro Mutante), 20:00etan; eta hilaren 19an, *Sutondoan* (A-Teatral), 18:00etan, hori ere umeentzat. Emanaldi danak izango dira Areetako Andres Isasi musika-eskolan.

Info+: getxo.net



mara  **mara**
famili gunea - espacio para familias

Bakoitzaren erritmoa entzuteko gunea

info@mara-mara.com 656 771 764 - 94 608 18 88 www.mara-mara.com (Berango eta Romo)

Nekane Learra Sarria > Leioako Emakumeak futbol-taldea

“Maila igo dugu, talde ona daukagu eta aurtengo partidak biziagoak izango dira”

Euskal Ligan estreinatuko da Leioako Emakumeak futbol-taldea urrian, iaz maila igo ostean. Nekane Learra Sarriak 11 urte daramatza taldean eta kapitain ere aritu da. Aurtengo asmoen gainean berba egin dugu beragaz.

—Erregional mailatik Euskal Ligara igo zarete, zorionak!

—Eskerrik asko. Kostata izan da. Urte piloa daramatzagu igotzeko gogoz, iaz bigarren lotu ginen eta aurten oso txarto pasatu dugu. Justo azken partidaren lortu genuen igotzea, Ugao ligako bigarrenaren aurkako partidaren. Zoriontsu danok, kristoren poza, baina une txarrak pasatu genituen. Egia esa, gero dana ahazten da, baina momentu haietan...

—Beraz, lan handiari esker izan da?

—Lan handiari eta taldeari esker. Urte piloa daramatzagu elkarrekin jokatzen: taldeko 10 lagun inguruk 8 urte daramatzagu batera, konfiantza daukagu eta igartzen da; kalitatea badagoelako, noski!

—Aldaketa handia izango da zuentzat maila igotzea?

—Bai, aldaketa handia. Berdin entrenatuko dugu, ordu berberak, baina igartzen da jendeak interes handia daukala eta, gainera, entrenatzaileak hasieratik esan digu



Leioako Emakumeak futbol-taldeko jokalariek

hau gauza serioa izango dela. Lehen kua-drilla ginen eta bagenekien onak ginela, baina orain, daborduko hiru aste daramatzagu entrenatzen eta topera gabiltza. Igartzen da seriotasun handia eta ez dugula lan kaskarra egin gura. Hainbeste kostatu zaigu igotzea, errespetu handia diogula maila barriari!

—Eta zer espero duzue?

—Mailan mantentzea. Talde nahiko ona daukagula eta ez dugula txarto pasatuko.

Nire ustez, erdian amaituko dugu liga. Partida zailak egongo dira, baina badakit talde ona daukagula.

—Emakumeen futbola osasuntsu dabil Leioan, ezta?

—Igarri da bultzada azken aldian; gainera, herritarrekin harremana daukagu eta internetek asko laguntzen du. Azken partidaren Sarriena zalez bete zen, ez dut uste oraingoz errepikatuko denik, baina aurtengo partidak biziagoak izango dira. ○

Kultur Leioako mamia

Udagoienerako **programazioa** aurkeztu du Kultur Leioak, **hamargarren** urteurrenean



Amaren Alabak zuberotar taldeak kantatuko du azaroan

Denboraldi hasiera aurreratu dute Kultur Leioan, hamargarren urteurrena ospatzera doaz-eta. Irailaren 26an abiatuko dute *Guatzeque* dantza bertikal ikuskizunagaz, non eta Errekalde plazan, 22:00etan. Kultur Etxetik jakinarazi dutenez, diziplina anitzeko ikuskizuna da eta eraikineko hormetan zintzilikatuko dira artistak; ez da Kultur Leioak halako ikuskizun bat hartzen duen lehen aldian.

Guztira 23 ikuskizun izango dira: dantza, antzerkia, kontzertuak, erakusketak, zinema, e.a. Hori dena “*Aterpe Leioa Gaztegunea eta auzoetako kultur aretoetako jarduerak abaztu barik*”.

Kontzertuetan danatarik izango da: Antonio Zambujo, Martirio eta Raul Ro-

driguez, Amaren alabak, Solis String Quartet, Andy J. Forest & Travellin' Brothers eta Gabacho Maroconnection.

Antzerkian, barriz, ondoko lanak eskainiko dituzte: *Feelgood*, *Distancia siete minutos*, *Arrastoak*, *Opera abeslaria*, *Hiru txerri txokoak eta otsoa*, *Codigo postal 00* eta *Gretel Hansel*.

Dantzari dagokionez, *V.O.+*, *Staying Alive*, *Txapelduna*, *DOT* eta *Babaol* ikuskizunak hartuko ditu kultur etxeak. Baina zirkoari ere lekua egingo diote, obra bigaz: *Mobil* eta *Babylon*.

Gainera, umetxoentzako zikloaren baitan eskainiko dituzte *H2O* antzezlanak eta *Kleur* dantza-ikuskizuna. ○

Info+: www.kulturleioa.com

TXOPOETAKO JAIK URRIAREN 3TIK 5ERA

Mikel Deunaren jaiak ospatuko ditu Txopoeta auzoak urriaren 3tik 5era eta zer eginik ez da faltako: jolasak, mozorroak, lehiaketak, zozketak, txopolinpiadak, herrikirol erakustaldia, puzgarriak, txokolategia, fanfarreak, e.a. Esatea barikuan Galkar taldearen disko-festa izango dela 23:00etatik aurrera, eta zapatuan erromeria egingo dutela Gaubela taldeagaz (bitartean mozorro-lehiaketa izango da). Aipatzea gastronomia-lehiaketak ere egingo dituztela: zapatuan, Txopoetako I. Putxera-Txapelketa izango da eta, domeka arrastian, tortilla lehiaketa. Parrandarako aukerarik ez dute galduko, ez txopoetarrek, ezta inguruko bisitariak ere!

POP ROCK-ERAKO KARTEL BILA DABILTZA

Leioako Pop-Rock lehiaketa iragartzeko kartela aukeratu dute, beste behin ere, lehiaketa bitartez. Lanak urriaren 24ra arte aurkez daitezke Aterpe Leioa Gaztegunean (Aldapabarrena, 2). Parte har dezake 14 eta 35 urte bitarteko lagunek, baina egile bakoitzak, gehienez, lan bi aurkeztu ahalko ditu. Sari bakarra dago, 600 eurokoa, eta azaroaren 28an egingo duten ekitaldian emongo dute, Kultur Leioan. Aurkeztutako lan danak Aterpe Gaztegunean erakutsiko dituzte azaroaren 10etik abenduaren 10era.

Info+: **944 055 850** eta gazte@leioa.net

PLAZEREN AZOKA URRI HASIERAN, BULEBARREN

Ikusmen eta Gastronomiko Plazeren Azoka egingo dute urriko lehen aste akabuan Bulebarren, hilaren 3, 4 eta 5ean; urtero legez, barikutik eta igandera, artisautza eta jaki postuak ipiniko dituzte: zentzumenak gozatzeko parada izango dute leioaztarrek zein bisitariak. Gainera, artisauek euren lanbideen erakustaldiak ere egingo dituzte (larru, zur edota burdin lanketa), umek zein helduek ikus eta balora dezaten lanon benetako balioa. Goazen gozatzera!

Info+: www.leioa.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com



Luberr Basolanak, SL
Axe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarrizte, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Txelis Orozko Ugarte > Goiherri kirol elkarteko presidentea eta entrenatzailea

“Urte askoan bilatu ostean, beste ilusio bat izan da Basque Country moduan ofizialki parte hartzea”

Euskadiko sokatira txapelketa irabazi zuten goiherritarrek abuztuan 580 kilotan. Horrenbestez, Euskal Herria ordezkatu zuten munduko txapelketan AEBtan, eta hirugarren lotu. Lehenengoz parte hartu du gure herriak estatu-selektzio ofizial moduan txapelketa horretan.

—Euskal Herria ordezkatu duzue munduan eta postu ona lortu, ezta?

—Basque Country bezala ofizialki parte hartzea lortu dugu, negoziazio prozesu luzearen ondorioz. Euskadiko txapelketa irabazten duen taldeak ordezkatzeko du Euskal Herria eta guk irabazi genuen. Munduko txapelketa Wisconsin estatuan (AEB) izan zen; hain zuzen ere, Madison herrian jokatu zen txapelketa. Abuztu amaieran izan zen, 28tik 31ra, eta guk 30ean tiratu genuen.

—Zelako esperientzia izan da?

—Beste ilusio bat da. Urte askoan joan gara horren bila, eta Basque Country ize-nagaz, eta ikurrina ikusi... ilusio handiagoa izan da! Lortu dugu ikusaraztea gure izena, oso pozik gaude!

—Gainera, hirugarren lotu zarete?

—Inportantea izan da, urduri egon ginen, lehen urtea Basque Country-rena eta ilusio handia egin zigun. Izan ere, garenak



Munduko txapelketan saria jasotzen, Wisconsinen (AEB)

gara, hori da gurea eta guk nahi dugu gurea. Horrela parte hartzean sentimenduak beste batzuk dira. Ikurrina ikustea beste herrialde batzuetako banderen alboan, besteen bardin, ez gehiago, ez gitxiago... Beti esan dugu: guk nahi dugu beste batzuen moduan egotea, bardin egotea.

—Eta zelako giroa zegoen, harreman ona daukazu gainontzeko selektzioakaz?

—Urte asko daroagu joaten eta harremanak egiten. Ulertzen zuten gure jarrera, beti izan ditugu harreman onak. Falta

izan dena da federazio internazionalak eta komite olimpiko internazionalak onartzea. Eurei galdetu behar izan zaie, hor egon da dena. Eta orain pozik gaude eskaera onartu digutelako. Aurten hirugarren, datorren urtean ea lehenengo postua lortzen dugun. Horretan ibili beharko datorren urtean.

—Baina, horretarako, Euskadiko txapelketa irabazi behar, ezta?

—Bai, hori ere bai, lehenengo hemengo txapelketa pasatu beharko dugu. ○

Beldur barik adierazi

Ikus-entzunezkoen lehiaketarako lanak aurkez daitezke azaroaren 12ra arte



Gazteentzako lehiaketa da Beldur Barik

Genero-indarkeriaren aurkako programa da Beldur Barik eta gazteentzako lehiaketak, topaketak eta hezkuntza-ekime-nak bultzatzen ditu, “gazteen jabeakuntza prozesua indartzeko”. EAE mailako ikus-entzunezkoen lehiaketa egingo da, baita Erandiokoa ere.

Proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute: “emakumeenganako indarkeria gainditzeko jarrera azaldu, eta harreman libre, errespetuzko, parekide, dibertso eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi” behar dute. Parte har dezakete 12 eta 26 urte bitarteko gazteek eta, esan legez, kategoria bitan:

12-17 urte eta 18-16 urte. Lehen eta bigarren kategorietan 250 euroko sari bana emongo dute, baina aipamen bereziak ere izango dira kategoria bietan, 100na euroko sariagaz. Gainera, EAE mailako lehiaketan ere parte hartuko dute. Azaroaren 29an Topaketak egingo dira eta bertan banatuko dituzte sariak.

Lanak jasotzeko epea azaroaren 12an amaituko da eta lehiaketaren oinarriak daukazu www.erandio.net gunean. Baina zalantzarik izanez gero, Berdintasun arlo-ara jo dezakezu: 944 175 616 eta berdintasuna@erandioko-udala.net. ○

Info+: www.beldurbarik.org

DEIALDIA GOI-ALDEKO BETERANOENTZAT

Erandiogoko Goi-Alde dantza taldeak 50 urte beteko ditu datorren udan eta ospakizun handia egin gura dute, atzoko eta gaurko dantzariak bustiz. Horregatik eta egun horretan zer egingo duten erabakitzeko bilera egingo dute urriaren 2an, 20:00etan. Asmoa da ikasturte osoan eguenero elkartzea entseatzeko, aspaldian dantzatutakoak berrikusteko eta gorputzari astindua emateko: entseguak 19:00etatik 20:00etara izango dira.

Info+: goi-alde.blogspot.com.es

KULTUR PROIEKTUEN MAHAINGURUA

Helduen Heziketa Iraunkorra programarako izen-emotea zabaldu dute. Irakurmena, idazmena eta memoria lantzeko ikastaroa da, ondokoak prestatzeko: kultur gaurkotzea, DBH titulazioa, unibertsitaterako sarbidea 25 eta 45 urte bitartekoentzatek edota goi-mailako prestakuntza zikloetarako sarbidea. Horrenbestez, ingelesa, euskara, internet eta irudi digitala, oinarriko informatika, argazkilaritza digitala, artea eta bestelakoak landuko dira. Altzagan eta Astrabuduan egingo dira ikastaroak.

Info+: 944 673 504

IRAKURLE ELKARTEA BARRIRO ERE MARTXAN

Irakurle elkarteak ikasturteari ekingo dio urriaren 21ean eta, ohi legez, hilean behin elkartuko dira irakurzaleak, liburu jakin bati buruz jarduteko. Proposatutako lehena da *La ciudad de los ojos grises*, Portugaleteko Felix G. Modroño idatzitakoa. Hurrengo deialdiak izango dira: azaroaren 18an, abenduaren 16an, urtarrilaren 27an, otsailaren 24an, martxoaren 31n, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an. Hasi baino lehen, eleberriaren egokitzapenaren irakurketa interpretatua egiten dute arduradunek. Astrabuduko kultur etxean elkartuko dira, 19:00etan.

Info+: www.erandio.net

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko



www.bizkaiadesdeaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€

-tik hasita
BEZ barne



EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

IZEN-EMATEA ZABALIK UDAL EUSKALTEGIAN

Irailaren 25era arte egongo da zabalik Sopelako Udal Euskaltegia izena emateko epea. Ikasturte honetan, interesa dutenek hainbat ikastaro izango dituzte eskura: euskalduntze maila guztiak (1-A, 1-B, 2, 3); guraso taldeak (hasiberriak eta gurasoak lagunduz); ostalari, dendaria eta kirol monitoreentzako ikastaro bereziak; mintzapraktikak; eta bizkaiera. Ordutegi, prezio eta bestelako informazioa jasotzeko Udal Euskaltegia (Enrike Urrutikoetxea, 10) hurbiltzerik badago.

Info+: euskaltegia@sopelana.com
Telefono zenbakia: 946 763 154

FAROLTZO SOLIDARIOEN HEGALDIA BARINATXEN

Sopela buru-belarri dabil Sopela Kosta Fest jaialdi berriaren prestakuntza lanetan. Ospakizuna irailaren 24tik 28ra bitartean luzatuko da, eta naturarekin, musikarekin eta surfarekin lotutako jarduerak lotuko ditu bere horretan. Horregaz batera, jaialdiari txapela jarri nahian, jarduera ikusgarri bat egingo dute irailaren 28an: 300 faroltzoren hegaldia Sopelako kostaldean. Ekimen horregaz, jaialdiari amaiera emateaz gain, faroltzoen salmentagaz lortutako dirua Aimar del Pozo urme gaixo sopoloztarrak jaso behar dituen ebakuntzak pagatzeko izango da. Horiek lortzeko txartelak eskuragarri daude udalerriko turismo bulegoetan, euro bitan. Ekimena 22:15ean izango da, Barinatxe hondartzan.

JABEKUNTZA-ESKOLA ETA TAILER UGARI SOPELAN

Kurtzio Kultur Etxeak 2014-2015 ikasturterako ikastaroetan izen-emate epea zabaldu du. Sopelan erroldatutako lagunek irailaren 21era arte izan dute aukera horietakoren batean izena emateko. Ez-erroldatutakoek, berriz, irailaren 24ra arte izango dute aukera. Aurten hainbat berritasun egongo dira, hala nola, antzerkia nagusientzat eta photoshop ikastaroa. Baina, berri nagusia Emakumeen Jabekuntza-Eskola izango da.

Info+: www.sopela.eus

Euskararen normalizazioa Ezin izango dute bermatu jendaurreko zerbitzuak euskaraz ere eman ahal izatea



EAJk eta PPK Planaren kontra bozkatu dute

Sopelako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2013-2014 lana geldiarazi dute EAJren 7 zinegotzien eta PPren zinegotzi bakarraren aurkako bozkek. Aipatu planak hainbat lanposturen hizkuntza-eskakizuna egokitzeko beharra aurreikusten zuen, orain arte jarritako eskakizunak ez baitu bermatzen lanpostu horiek esleituta dituzten eginkizunak betetzeko behar den euskararen ezagutza maila. Aldaketa horiekaz, Kulturako teknikariei eta udaltzainburuari eta eskolako atezainei 3. eta 2. hizkuntza eskakizunak ezartzea gura zuten, hurrenez

hurrenez. Bestalde, euskararen normalizazioan aurrera egiteko, egun euskararen ezagutza derrigorrezkoa ez duten hainbat lanposturi derrigorrezkoa jartzearen beharra ikusten zuen Planak, hala nola: herritarren arretarako zerbitzuko bi lanposturi, liburutegiko biri, administrari bati, administrazio orokorreko teknikari bati eta hirigintza eta lan eta zerbitzuetako arloko bi teknikariri, horiek guztiak ere herritarrakaz harreman zuzenak baitituzte. Kontuak hala, Udalak ezingo du bermatu jendaurreko zenbait zerbitzu euskaraz ere ematea. ○

Pablo Perez > natur gidaria Sopela Kosta Fest-en

“Sopelako ingurunea oso aberatsa da, animalia ugari aurki daizteke garaiotan”



Irteerak 20 pertsonatakoak izango dira, eta alde zurretik izena ematea gomendatzen dute

Irailaren 24tik 28ra bitartean, surfa, musika eta natura lotzen dituen jaialdia hartuko du Sopelak: Sopela Kosta Fest. Aipatu ospakizunak hainbat jarduera izango ditu, hala nola, Pablo Perezek zuzenduko dituen natura ezagutzeko irteerak.

—**Inguruko fauna ezagutzeko irteerak zuzenduko dituzu. Interesatuak zer aurkituko dute horietan?**

—Bi irteera egingo ditugu. Lehenengoa, labarretara; eta bigarrena, zelaiguneetara. Biak oso hurbil daude elkarrengandik, baina oso ezberdinak dira. Alde batetik, kostaldean hegazti migratzaileak topa ditzakegu garai hauetan; itsas hegaztiak ere badaude, kostaldean bizi direnak; baita harrapariak ere, hala nola, belatz handia. Horregaz batera, txori txikiak egoten dira ekosistema horretara bereziki egokitu direnak. Bestalde, zelaiguneetan, harrapariak, ugaztunak, muskerrak eta intsektu ugari aurki ditzakegu, besteak beste.

—**Zelakoak izango dira ibilbideak?**

—Irteerak irailaren 27an eta 28an izango dira, goizeko 08:00etatik 11:00etara. Zapatuan, Peña Txuri eskola parean, Arriatera hondartzan. Ibilbidea zirkularra izango da, Sopelmarretik igo, Meñakoera jaitsi eta Barrikara arte joango gara. Ondoren buelta egingo dugu beste leku batetik. Domekan, barriz, udaletxeko plazatik irtengo gara, eta Urdulizko haitzetara arte heltzen saiatuko gara, denbora ematen

«Ingurunea ezagutu behar dugu, hori balioesteko eta babestu nahi izateko»

baldin badu. Irteeretan ingurunea interpretatuko dugu: landaredia, oinatzak, hegaztiak eta hirigintza-planak. Hala, inguru horietan zeintzuk animalia aurki ditzakegun aztertuko dugu: hegaztiak, narrastiak eta ugaztunak. Sopelako inguru honetan, ez badirudi ere, ugaztun ugari dago, hala nola, basurdeak, azeriak eta orkatzak. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Haiak
Gosariak, Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bentaxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com

TXAKURRAK SOLTE IBILTZEKO BERDEGUNEAK

Txakurak solte ibili ahal izango dira Berangoko honako berdeguneetan, jabearen kontrolpean baldin badaude: Kurtze auzoan, Kandaruerreka erreka inguruan; Moreagan, anbulategi inguruan; Zugatz eta Maisu ibilbideen artean dagoen berdegunean (udaletxe atzeko mahai gunea ez); eta Armuru bidearen atzealdean dagoen eremuan. Udalak jakinarazi duenez, gune horietan hori adierazten duten panelak jarri dituzte. Udalerriko bestelako parkeetan eta landa guneeetan lotuta joan beharko dute.

Info+: www.berango.net

ESTALPEKO SKATE PARKEA ZABALDU DUTE

Skatean ibiltzeko estalpeko parkea sortu dute Berangon. Hala, 5 urtetik gorako neska-mutilek gorpildun taularen gainean ibiltzen ikasi gura dutenek, aukera hobezina izango dute bertako eskolaz kanpoko eta asteburuko tailerrei esker. Ikastaroak urrian hasi eta ekainera arte luzatuko dira.

Info+: ukskatetparkberango@gmail.com
Telefono zenbakia: 664 226 700

TXIKIENENTZAKO ESKUBALOI-TALDE BERRIA

2006 eta 2007 urteetan jaiotako neska-mutileen eskubaloi-taldea sortuko dute 2014-2015 ikasturterako. Aipatu taldea Berango Eskubaloi-Taldearen parte izango da, eta Uribeko Eskubaloi Eskolaren esperientziak jasoko ditu.

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Kurtso hasiera, **tailer ugari** Adin guztietarako hamaika ikastaro antolatu dituzte **ikasturte osorako**



Ikastaroetan parte hartzeko alde aurretik izena eman beharko da

2014-2015 ikasturtearen hasieragaz batera, adin guztietarako hamaika ikastaro antolatu dituzte Berangon: altzairu zaharberritzea, zur lanketa, tai-chi, euskara, ingelesa, dantza modernoa, gimnasia eta koedukazioa, besteak beste. Tailerrak adinen arabera banatuta egongo dira, hau da: 18 urtetik gorakoentzat, besteak beste, altzairu-zaharberritzea, zur lanketa, tai-chi, eskulanak, euskara eta ingelesa; umeei zuzendutakoak: dantza modernoa eta margolaritza ingelesez; eta nagusiei begirakoak: gimnasia, saloi dantza, tai-chi eta abesbatza. Horregaz

guztiagaz batera, berdintasunaren arloko hainbat ekintza egingo dituzte: irakurketa kluba, eguneroko psikologia, zine foruma, erlaxazio tailerra eta koedukazioa, besteak beste. Horietakoren batean parte hartzeko alde aurretik eman beharko da izena Berangoetan, irailaren 26a baino lehen; berangoztarrek lehentasuna izango dute plaza eskuratzeko. Prezioa ikastaroaren arabera izango da, eta urriaren 2a izango da ordainketa egiteko azken eguna. Berangon erroldatutakoek beharpena izango dute. ○

Info+: www.berango.net

Dimitrios Ioannou > Periplo elkarte grekoa

“Guk ezagutzen dugun Greziaren errealitatea gizarteratu nahi dugu”



Info+: asociacionperiplo.es

Periplo 2013ko ekainean Bilbon sortutako elkarte grekoa da. Urtebeteko ibilbidea duen arren, bertako partaideek hainbat ekimen antolatu dituzte eurek ezagutzen duten Greziako errealitatea gizarteratzeko, berbarako, jaialdi gastronomikoak eta dantzaldiak. Euren ibilbidea sakonago ezagutzeko, elkarteko lehendakariagaz egon gara: Dimitrios Ioannou.

—Zein helburugaz sortu zenuten Periplo elkarte?

—Euskal Herrian bizi ginen greko gitxi batzuk Greziako kultura, batez ere garaikidea, zabaltzeko grinagaz elkartu ginen. Guztiok ezagutzen dugu gure herria, gure kultura, politika, tradizioak, musika eta kirola. Hala, kontaktuan jarri eta elkarte hau eratzea erabaki genuen, esperientzia guzti horiek zabaltzeko. Guk ezagutzen dugun Grezia solidarioa da, bere iraganaz eta orainaldiaz harro dagoena.

—Zer zelako ekintzak egiten dituzue hori guztia gizarteratzeko?

—Greziako naturari buruzko hitzaldiak

egin ditugu, bertako egungo zinema zikloak, musika jaialdiak, gastronomia erakustaldiak, Greziako argazkilaria garrantzitsu baten erakusketak eta egungo Greziaren inguruko hitzaldiak, besteak beste. Horietako ekimen batzuk errepikatatu nahi ditugu, baita ekimen berriak antolatu ere. Hala, hurrengo urtean, XX. mendean Greziako hiri handietan

«Guk ezagutzen dugun Grezia gizarteratu nahi dugu»

sortutako musika estilo baten inguruko jaialdi bat antolatuko dugu, besteak beste, bideo emanaldiak eta musika hori jorratzen duten kontzertuak.

—Plentzian argazki erakusketa bat egin zenuten uda hasieran. Harreman zuzena duzu Plentziagaz, ezta?

—Bai, nik Plentzian egiten dut lan, eta, elkarteko kide guztiek Grezia maitatzen duten bezala, nik Plentzia maite dut. Hori dela eta, Greziako eta Plentziako errealitateak elkartzen saiatzen naiz. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoriabide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



PLENTZIAKO ESAERA ZAHARREN V. TXAPELKETA

Aurten ere Esaera Zaharren Txapelketa izango da Plentzian. Hala, irailaren 27an, zapatua, bosgarren edizioa ospatuko dute udalerriko Eleiz enparantzan, goizeko 11:00etatik aurrera. Horregaz batera, Jon Maiak eta Iratxe Ibarrek bertotan egingo dute.

GURASOAKAZ EUSKARAZ JARDUTEKO ESKULANAK

Aurrera darrai Mankomunitateko Euskara-Zerbitzuak tokiko umeak eta gurasoak alkarregaz euskaraz jolastu ahal izateko Euskaraz Olgetan egitasmoak. Interesa dutenentzako eskulturak egiten ikasteko tailerrak proposatu dituzte. Ohi legez, tailerrak herriz herri egingo dituzte. Hala, eskultura-tailerra irailaren 25ean egingo dute Plentziako Astillero plazan, (17:30-19:30); irailaren 26an Urdulizeko Antso-nekoa plazan, 17:30etik 19:30era; irailaren 27an Gorlizeko Ibarreta plazan, (12:00-14:00); irailaren 29an Armintzako portuan, (17:00-19:00); eta urriaren 5ean Sopolako Urgitxieta plazan, (12:00-14:00).

BILDUK HARREMANA ETEN DU GOBERNU TALDEAGAZ

Plentziako Bilduk harremanak eten ditu tokiko Gobernu Taldeagaz. Uztailean hartu zuen erabakia, Gobernu Taldeak euren iniziatibei, asko bizilagunak helarazitakoak, inolako erantzunik eman ez izanagatik. Hala, Bilduk bere kabuz jardungo duela erabaki du.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Plentzia

Hainbat familiak 1.000 sinadura batu ditu eskola-garraioa mantentzeko



Gatzamiñeko auzo-elkarte batek ere inguru horretako bide segurtasuna salatu du berriki

Plentziako Eskolako hainbat familiak 1.000 sinadura batu dituzte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari udalerriko eskola garraioaren zerbitzua guztiz mantentzeko. Horregaz batera, e-kintza horren arduradunek jakinarazi dutenez, Plentziako Udalarri ere helarazi dizkiote sinadura horien kopiak. Sinadurakaz batera, familiek testu bat erantsi dute, egoera zein den azalduz: *“Plentziako, Barrikako, Gorlizko, Lemoizko eta Armintzako ikasleak Plentziako Eskolara eramateko garraio zerbitzua bere horretan mantentzea eskatzen dugu, zentro horretarako sarbideak dituzten arriskuengatik, eta lana eta familia bizitza ez eteteko”*. Hala, sinadura hauek auzokide elkarte batek berriki aurkeztutako sinadurei bildu zaizkie. Elkarte horrek, 2122 errepide foralaren Metro geltokiaren inguruko bide-segurtasuna hobetzeko eskatu zioten Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari. Herriko hainbat familia-

ren arabera, inguru hori ez dago egokitu-ta horrenbesteko autoren joan-etorriak jasateko: *“Metro, Bizkaibus eta taxi geltokiak bat egiten duten tokian arriskua etengabekoa da, eskolara, enstitutura, haurreskolara eta Gatzamiñe auzora joateko bidean dago gainera”*.

«Plentziako Metro-geltoki ingurua oso arriskutsua da, batez ere ibiltarientzat»

Apirilaren 4an, Eskolak, Haurreskolak eta Plentziako Institutuak, Gatzamiñeko auzokideen elkarteagaz eta Udalgaz batera, gutun bat helarazi zioten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari. Horretan, eskola-garraioaren zerbitzua murrizteko balizko erabakiaren aurrean, euren kontrako jarrera helarazi zioten, bide segurtasunaren inguruko kezkek azaltzeagaz batera. Oraindino ez dute erantzunik jaso. ○

Ira. 22 - Urr. 6

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ZINEMA

LEIOA

► **Perseo zineforum: film emanaldia + solasaldia.** Urriak 7, 14, 21 eta 28, 20:00etan. Kultur Leioan. 2,5 euro.

BARRIKA

► **Rio II.** Urriak 10, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Txatarra (Malas Compañías zirko taldea).** Irailak 26, 19:30ean. Irailaren 23a plazan. Doan.

LEIOA

► **Guatque, dantza bertikal ikuskizuna (Delreves konpainia, Katalunia).** Irailak 26, 22:00etan. Errekalde plazan. Doan.
► **Dot, dantza ikuskizuna (Maduixa Teatre, Valentzia).** Urriak 5, 18:00etan. Kultur Leioako Auditorium aretoan. 5 euro.
► **Feelgood (Off y enTRAMAdos).** Urriak 11, 20:30ean. Kultur Leioako Auditorium aretoan. 15 euro.

GETXO

► **Walkman (Ganso & Cia).** Irailak 27, 13:00etan. Romoko Santa Eugenia plazan. Doan.
► **A vueltas con la vida (Beatriz Carvajal).** Irailak 27, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 12/15 euro.

SOPELA

► **Umeentzako antzerkia: Kibubu (Marie de Jongh antzerki-taldea).** Urriak 5, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.



Boogie Riders taldea

► Musika

Inkestas Rock jaialdia, udagoiena hasteko

Bertoko, Uribe Kostako rock-musikaz gozatzeko aukera paregabea daukazu udagoiena hasteagaz batera, Sopolan. Urriaren 3an eta 4an ondoko taldeak igoko dira oholtzara: Neila, Beruna, Boogie Riders, Diana, Lagarto, Melmak, Sid, Dings and Flamingos, Killerkume, Bolquete, Chivo, Luppulo, Big Mouth, Akhvan, Molikote, Circus, Green Dog, Sinerdolls, Peter eta Gildas. Oraingoan, kontzertuak Udaletxe plazan izango dira eta, ohi legez, doan. Eskualdeko rock-musika ezagutarazteko asmoz sortu zen Inkestas Rock-jaialdia eta, urtez urte, sendotuz doa. Ondo pasa eta ez pasa!

• **Non:** Sopolako Udaletxe plazan • **Noiz:** Urriaren 3an eta 4an

MUSIKA

SOPELA

► **Sopela Kosta Fest.** Irailaren 24tik 28ra. Ekimenak herri osoan. Doan.
► **Sean Keane (Irlanda).** Urriak 10, 20:30ean. Kurtzio kultur etxean. 5 euro.

LEIOA

► **Antonio Zambujo (Portugal).** Urriak 3, 21:00etan. Kultur Leioako Auditorium aretoan. 15 euro.

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **Bosteko 2014: Alberto Albor, Iranzu Antona eta Kepa Garraza.** Irailaren 29ra arte. Kultur Leioako erakusketa aretoan. Doan.
► **Gerra zibila eta memoria historikoa Leioan (Aranzadi Zientzia elkarte).** Urriaren 9tik aurrera. Kultur Leioako erakusketa aretoan. Doan.

GETXO

► **Getxophoto.** Irailaren 30era arte. Algortako kaleetan eta erakustaretoetan. Doan.

ERANDIO

► **Goazen gudari danok.** Irailaren 23tik urriaren 8ra. Altagako azoka zaharrean. Doan.

BESTEAK

LEMOIZ

► **Paddel surf ikastaroa.** Irailaren 30era arte. 15 euro.

GETXO

► **Hitzaldia: Hazibideak: zigorrak eta sariak.** Irailak 23, 17:30ean. Areetako Elkartegian. Sendi egitasmoak antolatuta.
► **Liburu aurkezpena: Susana Rodriguezen Los cristales magicos.** Irailak 25, 19:00etan. Algortako kultur etxean. Doan.

PLENTZIA

► **Ludoteka plazara, umeentzako ekimena.** Irailak 24, arratsaldean. Ontziola plazan.
► **Esaera zaharren txapelketa.** Irailak 27, 11:00etatik aurrera. Eleiz enparantzatik.

BARRIKA

► **Irakurketa suspertzeko tailerra gazteentzat.** Urriak 3, 18:00etan. Liburutegian.

LEIOA

► **Ikusmen eta gastronomiko plazeren azoka.** Urriaren 3tik 5era. Bulebarren. Doan.
► **Txopoetako Mikel Deunaren jaiak.** Urriaren 3tik 5era.

SOPELA


► **Graffiti-lehiaketa.** Urriaren 4an.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Sustraiak han dituenak

Getxo Folk jaialdia, irailaren 4a. Sarrerak agortuta. Ara Malikian biolinistak, Fernando Egozkue eta Jose Luis Monton gitarristek, eta Oreka TX eta Kalakan taldeek ikuskizun ederra emon zuten: *Sustraiak*, Folk jaialdirako beren-beregi muntatua. Ikuskizun bizia eta, zergatik ez, umoretsua; ikusleek nekez ahaztuko duten operi aparta, errepikatuko den itxaropenez lotuko zen hainbat eta hainbat...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ereaga

Neguritik, 1935

Giro lasaia antzeman daiteke irudian, ez gerrate zantzurik, ezta euri jasa adierazgarriker ere... Uda hasiera edo amaiera zatekeen, hondartza etxolatxoak ageri dira, baina eguzkizale eta bainu zale askorik ez dago hareatzen. Titan garabia gure paisaiaren lekuko zen garaia zen... Teilatuen gainetik ateratako argazkiak ezin izan zuen iragarri ordutik gitxira bonbaz betetako hegazkinek belztuko zituztela zerua, giroa, aldartea...

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Bost urte zituenetik Algortan bizi den Mikel Lejarza Bilbao (Bilbo, 1969) da EHUko Saltillo eskola-ontziko kapitaina. 11 urte daroatza gidaritza horretan, eta Portugaleteko EHUko Nautika eta Itsasontzi Makineriako Goi Eskola Teknikoan Administrazio-Zerbitzuetako langile da. Saltillo eskola-ontziaren mantenuaz arduratzen da, eta ikasleakaz itsasoratzen da haiei nabigatzen irakasteko. Historiako dokumentuek diotenez, Saltillo 1932an eraiki eta handik urte bira erosi zuen Pedro Galindez enpresari bizkaitarrak. 1946-1963 artean Espainiako errege familiari utzi zion, eta 1968an Galindezek Nautika eta Itsasontzi Makineriako Eskolari emon zion. Urtetan galbidean egon ostean, Jaurlearitzaren laguntzaz zaharbarritu, eta berriz itsasoratu zen 1998an, gaur egun EHUko eskola-ontzi legez erabiltzen dute. Udaldiko azkeneko bidaian itsasoratu baino lehenago berba egin genuen Lejarzagaz; Santander-La Rochelle bitarteko olatuak gainditu ostean, honezkero gurean porturatzeaz izango da.

Mikel Lejarza

Saltilloren itsas-ametsak gidari

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan eta zergatik erabaki zenuen lanbide honetan jardun gura zenuela? Zelan gogoratzen dituzu hastapenak?

—Ikastola garaitik oso argi neukan hau egin gura nuela... Amaren aldetik danak dira itsasgizonak: aitite kapitain zen eta bere anaia guztiak arrantzaleak, bermeotarrak... Inork ez zidan ezer ere esan, nik aukeratu nuen hau ikastea; eta pozik! Portugaleteko Goi Eskola Teknikoan adar bi daude, Nautika eta Itsasontzi-makineria; lehenengo, Itsasontzi-makineria lizentziatura egin nuen, eta gero Nautikakoa; titulu profesional bi daude, makina burua eta goi mailako pilotua merkataritza-nabigazioan. Eta horregatik naiz Saltilloko kapitain 2003tik. Ikasten nembilenetik, lehenengo ikasturteetik Saltillo hemen zela jakin nuen, baina nahiko egoera txarrean zegoen... Orduantxe

uretatik atera eta barrizteko diru bila hasi ziren; horretan 10 urte emon zuten; juxtu karrera biak amaitu nituenean bota zuten berriz uretara, baina ni, sasoi hartan, merkataritza-nabigazioan hasi nintzen, gas-ontzietan. Ostera, Saltillo-

tero-urtero esaten zigula “*datarren urtean, ziur, uretara doala...*”; hala emon genituen 10 urte! Eta halako batean, Eskolara bueltatu behar izan nuen, Nautikako kontuetan beti atzera eta aurrera gabiltza paper kontuak edo ziurtagiriak di-

“Ikastola garaitik oso argi neukan hau egin gura nuela. Amaren aldetik danak dira itsasgizonak...”

ren kontua beti buruan neroan; zaharbarritzeak iraun zituen 10 urteetan beti galdezka: “*eta Saltillo zer? Noizko?*”. Akorduan daukat urtero etortzen zela Fernando Cayuela, Saltillo belaontziar arduratzen zena, Eskolako orduko maisu zen bera, zuzendari ere izan dena, gaur egun zuzendariorde... Eta kontua da ur-

rela eta, eta hara non Saltilloz galdetu eta ostera ere uretan zela esan zidaten! Eta gainera ontzia mantentzeko eta nabigatzeko arduradun baten bila zebiltzala... Neure burua aurkeztu, proba batzuk egin, eta geroztik bertan nabil.

—Zer da Saltillo zuretzat?

—A ze galdera! Bete-betean jo nauzu...



Satillo! Uf! Gauza asko da Saltillo! Maite nagusia! Edo bigarrena! Amets bat, amets bat! Itsasoan gabiltzanontzat edo bela gustuko dugunontzat amets bat da! Barku oso berezia da, historiari eta istorioz josia! Eta, orain, Saltillo gidatzeko ohorea daukat... Eta gainera jende gazteagaz nabigatzeko aukera, eta irakasten... Bizitzako ametsa!

—Uda honetarako hiru itsas-bidaia aurreikusitako zenituzten: Galizia-Asturias-Getaria, euskal kostaldea eta Santander-La Rochelle; lehenengo biak eginda daborduko. 14 ikaslegaz ibili zara, zer ikasten dute? Itsaso ona izan duzue?

—Egiten ditugun bidaiak beti aitzakia batez antolatzen ditugu: lehenengo bidaia horretarako izan zen Avileseko Udalak eskatu zigulako, Itsasoaren Astea ospatzen zuten eta gonbidatu gintuzten, beste ontzi mota batzuk legez. Hori geneukanez, bada bidaia apur bat luzatu eta Galiziaraino joatea erabaki genuen... Bidaia nahiko ondo joan zen, Galizian udalek harrera oso ona egin ziguten, itsas armadako eskola erakutsi ziguten... Lehenengo aldia da halako bat ezagutzen dudala, nahiko bitxia izan zen guretzat... Ribadeon egon ginen, eta gero lau egun Avilesen barkua erakusten eta festibalean sartuta; eta handik, Getariara, Elkanoren Etorrera ospatzen zutelako, lau urtean behin egiten duten ekitaldian parte hartzeko eskatu zigulako udalak, eta gustura joan ginen. Gero, bigarren bidaia kostaldekoa izan da; horretan aprobetxatzen dugu apur bat ontzia ezagutarazteko, jendeari hurbiltzeko, azaltzeko zer den gure proiektua, zer den gure eskola, zelakoak diren ikasketak e.a. Bidaia hori Eusko Jaurlaritzagaz koordinatzen dogu, akordioa daukagulako: eurek ontzia mantentzeko dirua ematen digute, eta guk portuetan eta promozioa egin behar dugu, propaganda-bidaia izaten da. Jendeak gustuko du barkura hurbiltzea, ezagutzea, eta barkua gero eta gehiago ezagutzea guretzat ere komenigarria da. Eta hiruga-

rren bidaia hau La Rochellerainokoa da, han ontzi-aretoa antolatzen dute-eta; Jaurlaritza hara euskal portu bezala gonbidatuta joaten da, eta joateko eskatzen digute aurkezpena egiteko eta... Promozio-lan hori ere egin behar dugu, barkua Jaurlaritzaren diruagaz barriztu zen eta Jaurlaritzaren diruagaz mantentzen da... Orduan, hori eskertzekoa da. Eta ikasleek

“Niretzat Saltillo gauza asko da... Nire maite nagusia! Edo bigarrena! Amets bat! Bizitzako ametsa!”

zer ikasten duten? Nik esaten diedan legez: ez ditut klaseak emoten, hemen barkuan bakarrik egonda ikasten dute. Barkua eurek eroaten dute, ni naiz kapitaina baina gau guztiak eurek egiten dituzte, nik esaten diet zelan egin, baina egin eurek egiten dute: eurek eroaten dute lema, eurek ipinten dituzte martxan makinak, eurek igotzen eta jaisten dituzte belak, maiobra guztiak (atrakatzea, desatrakatzea e.a.), dana eurek... Orduan, nahitaez ikasten dute. Hori alde teknikitik, eta gero izenakaz-eta ohitzen dira: ontziko parte danak eta egin beharreko lan guztiak. Bestalde, eurak merkataritza-nabigazioa ikasten dabilta, gasontzi edo petrolio-ontzietan ibiltzeko... eta halakoetan zaintza edo jagoletza-txandaka antolatzen dira; horregatik, bidaia hauetan ere hala

“Ez dago klaserik, barkuan egonda bakarrik ikasten dute; dana eurek egiten dute, nahitaez ikasten dute”

moldatzen ikasten dute. Jagoletza-txanda bakoitzeko arduradun bat dago eta berak konpondu behar ditu sor daitezkeen arazoak, lar korapilatzen badira nik laguntzen ditut... Horrez gainera, hiru txanda daudenez, hiru taldeen artean ere ondo konpondu behar dute, barkuko bizitza guztia eurek eroaten dutelako: janaria

eurek prestatzen dute, harrikoak egin, barkua garbitu e.a. Horretarako talde-lanean jardun behar dute, eta ondo eroatea oso garrantzitsua da.

—Eta ikasleek zer egin behar dute halako bidaiatan parte hartzeko? Nota onenak atera?

—Ez... Ikasturte hasieran bilera bat antolatzen dut, batez ere lehenengo mailakoei

zuzendutakoa, praktikak zelan doazen azaltzeko; eta urtean zehar egingo diren irteeretan izena emon behar dute, asteazken eta ostiraletan irteten gara nabigatzen. Izen emoten dutenen zerrendatik 19 ikasle aukeratzen ditut nabigatzera irteteko, eta gero, praktika horietan parte hartu dutenentzat udarako bidaiatarako beste zerrenda bat zabaltzen dut; horretatik bidaia bakoitzerako 14 ikasle aukeratzen ditut, dakitenakaz eta hiruzpalau berrigaz taldea osatzen ahalegintzen naiz. Ez dauka zerikusirik klasean egiten dutenagaz, barkuan egiten dutenagaz baino: ontziaren mantenu-lanak eta irteera gehiago egiten dituztenek, edo ontziarekiko lotura handiagoa erakusten dutenek dute lehentasuna.

—Udan bakarrik egiten ditu Saltillok

netik baino, ez nahastu... Orain dela urte batzuk Hendaiaiko erakusketara joaten ginen, maiatzean izaten da, baina gaur egun ez digute eskatzen joateko... Halako aitzakiak daudenean joaten ahalegintzen gara, baina ikasleek klaseak izaten dituztenez, bada normalean bidaiak udarako uzten ditugu.

—Zein da gogoan duzun Saltilloko bi-

“Itsasgizon batentzat lekurik mitikoena da: Hornos lurmuturra, Drake igarolekua e.a. Itzela izan zen!”

daiarik onenetakoa? Eta txarretakoa? —Bizpahiru bidaia berezi izan ditut, eta horietako bat nire lehenengo bidaia izan zen. Orduan beste bat zegoen kapitain, nik ondo ikasi arte beste irakasle bat etortzen zen nigaz. Iñaki Uriarte zen kapitain, eta Irlandara egin genuen bidaia. Irlandarako bidean denborale nahiko txarra izan genuen, gauza piloa apurtu zitzaizkigun, desastre itzela izan zen... baina azkenean heldu ginen. Nik beti kontu bera esaten dut: *“behin bidaia amaituta, gogoratuko duzuna eta kontatuko duzuna kontu txar hori izaten da, beti...”* Baina egia da, momentuan, nahiko txarto pasatzen duzula; itsaso zakarragaz hiru egun egon ginen, tripulazio erdia mareatuta,

ezin genuen janaria ondo prestatu, bela bat jausi zen, makina batean arazoak... Bidaia deserosoa izan zen; ostera, bueltakoa guztiz kontrakoa izan zen. 8 egun behar izan genituen joateko, eta 5 egunetan bajatu ginen. Buelako bidaia zoragarria izan zen, arazo barik, barkua ondo zihoan, gauza guztiak erreparatuta... Niretzat esperientzia hartzeko bidaia izan

zen hori, baina nabigatzeko deserosoa, gorako bidaia gehien bat... Gero, esperientzia polita izan genuen beste bidaiatarako bat, hirutan egin duguna, Bresterainokoa (Britainia) da; lau urtean behin egiten dugu, jaialdi bat antolatzen dutelako, joateko beste aitzakia bat guretzat... Hemen ez ditugu ezagutzen halako festibalak, eta itzela da! Mundu osoko, edo gehien bat Europako, barkuak joaten dira; bi edo hiru mastako piloa egoten dira! Eurentzat kontu komertziala izaten da, baina guretzat halako barkuak ikusteko aukera bat izaten da; ez gaude ohituta gurean halakoak ikustera, baina European piloa daude; ikasleei begi aurrean beste mundu bat irekitzen zaie. Gainera, he-

mendik harako bidaia oso polita da: hiru eguneko bidea, eta Kantauri itsasoa zeharkatzen dugu. Eta hara heltzean barku horiekaz nabigatzeko aukera izaten dugu, hobeto ezagutzeko, beste tripulazio batzuk ezagutzeko... Bajatzean, festibal horrek beste batez kointziditzen duenez, Douardenenezkoagaz hain zuzen, eta Brestetik Douardenenezera estropada bat antolatzen dute, eta han beste hiruzpalau egun egoten gara. Ostean, beheheranzko bidean, De L'ilen gelditzen gara, uharte bat dago, nahiko polita... Horrenbestez, bidaia nahiko polita izaten da, eguraldi ona bada, noski!

—Eta Saltillon euskara entzuten da? —Batzuetan bai. Tripulazio erdiak edo badakienean, batzuk berba egiten dugu euskaraz gure artean... Baina, badakizu, talde handian denek ez dakitenean hizkuntza bat, hobe-edo izaten da bestea erabiltzea...

—Kapitain eta unibertsitateko langile... arrantzale arruntak baino soldata eta bizimodu hobekak izan dituzu, ezta?

—Soldata hobeara... ez dakit! Ez dakit zenbat irabazten duen arrantzale batek... Eta kapitain izan arren, nire soldata nahiko arrunta da! Baina bizimoduaren aldetik, duda barik! Nik pentsatzen dut arrantzale batena baino bizitza hobea badela, bai, askoz hobea! ○

Hornos lurmuturra eta Antartika

—Beste bidaia berezi bat ere egin duzu: Bakea Bizkaian, Argentinatik azken portutik Antartikarainokoa.

—Bai! Hori gozamen itzela izan da! Bidaia oso polita! Esperientzia oso polita! Maila profesionalen ere ikasi egin dugun bidaia izan da. Aukera izan dut Unai Basurkogaz nabigatzeko, beste barku bat eta beste kapitain bat ezagutzeko, nabigateko beste modu batzuk ezagutzeko, beste itsaso batzuk...

Ni makinaren kontuez arduratzen nintzen bidaia horretan, baina ikasketaz eta “polivalentea” naizenez... Gurean bezala, txandaka antolatzen ginen, eta horretan ere parte hartzen nuen: bizpahiru lagun taldea zen, harreman ona zegoen... Ni Bahia Blancan ontziratzen nintzen, hortik Ushuaiako porturaino bajatu ginen; han hainbat kanaletatik nabigatzen ibili ginen, gero Hornos lurmuturrera ailegatu arte, eta handik An-

tartikara salto egin genuen. Antartikan, 10 bat egunez nabigatu genuen, eta gero, ostera ere, salto buelta. Salto hori, itsasgizon batentzat, munduko lekurik mitikoena da: Hornos lurmuturra, Drake igarolekua eta... Oso ondo egon zen, ez zen ezer txarrik pasatu; eta horregatik ere esperientzia oso polita geratzen zaizu. Gainera, Antartikan nabigatzeko aukera jende gitxiak dauka; eta oso-oso ondo egon zen!



Salto mundialak

Munduko *skaterrik* onenak elkartu ziren irailean Getxon, La Kanteran. Volcom BOWL-A-RAMA zirkuitu profesionaleko egoitzetako bat izan zen Arrigunaga hondartzako pista, Sidney, Wellington eta New York-egaz batera; Europan jokatu den zirkuituko proba bakarra izan zen, hain zuzen ere, Arrigunakoa. Ikuskizuna, hitz bakarrean esateko. Ander Ormaetxearen irudiori erreparatu besterik ez duzue...

Argazkiak: **Ander Ormaetxea**







Goazen gudari danok erakusketa > urriaren 8ra arte Erandion ikusgai

Eusko Gudarosteak frankistei aurre hartu zienekoa, 1936ko uda akabuan

1936ko irailean eta urrian jazotako bataila gogoratzen du Goazen gudari danok... Askatasun bidean (Zirardamendi San Migel-Aiastia, Elgoibar 1936) erakusketak. Sabino Arana Fundazioak ekoitzi du hainbat elkarteren babesagaz, eta Altagako azoka zaharrea ikus daiteke urriaren 8ra arte.



Gudariak desfilatzen

Zirardamendin “eroritako” 14 hildakoei, Arana Goiri batailoikoak, “gonazarre” egiteko antolatuta du erakusketa Sabino Arana Fundazioak, “gerran galdu zirenen, edo gerra eta diktaduraren negu luzea sufritu zituzten guztien lagin bat direnez gero”.

Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuaren baitan “leku berezia” eskaini dio Elgoibarko Aiastia (San Migel) gudari. Esatea, hildako haien artean direla Sabino Atutxa Olabarri getxoztarra eta Euse-

bio Gaubeka leioaztarra. Fundaziotik azaldu dutenez, gertakari hura 1936ko irailean hasi zen, Debabarrenean. Bizkai- an antolatuta ziren gazteek, Elgoibar eta

Markina artean dagoen Aiastigainetik hasi eta Elgetaraino, Eibarko mendietan barrena, “*Fronte Nazionalaren aurrerabide*”.

Zirardamendiko gudan Eusko Gudarosteko 14 gudari hil ziren, tartean eskualdeko bi

dea oztopatzea lortu zuten”.

Aiastiako guda “*berebiziko*” garrantzia izan zuen: Gipuzkoako eta Bizkaiko mugan lortu zuten fronte nazionalaren aurrerakada gelditzea; izan ere, “*Nafarroako erresistentzia ezari eta Gipuzkoako erresistentziaren antolamendu eskasari esker, fronte nazionalaren aurrerakada, ordura arte, geldiezin izan zen*”.

Erakusketaren bitartez, 1936ko irailaren 26an gertatutakoaren barri emon



Eusko Gudarosteko konpainia bat

gura du Fundazioak, “*borondatez Eusko Gudarostea sortu zuten gazte haiek egin zuten balentriaren barri; beren ideiak defendatu zituzten guztien memoria gogorarazi eta omendu*” gura dute. Halaber, itzuli ez zirenen familiak ere gogora ekarri gura dituzte eta, “*batik bat, oraindik ere, gertakariak nola bukatu ziren ez dakite-*

nak”. Altaga auzoko azoka zaharrea ikus daiteke erakusketa oraindik eta urriaren 8ra arte: aste barruan arrastiz eta aste akabuetan goiz eta arrastiz.

“Eusko gudariak” ereserkia

Jose Maria Garate Azkarraga getxoztarrak idatzi zuen “Eusko gudariak” 1932an.

Mendi urteera batean entzun zuen abestiaren musika lehenengoz eta haregaz ereserki aberkoi bat egin zitekeela bururatu zitzaion; gau hartan bertan idatzi zuen “Eusko gudariak”. Horrela jaso du Karla Llanosek *Memorias de Getxo* blogean. Garatek, antza, Bilboko EGIkoei eroan zien letra. Hasieran ez ei zuen izan arrakastarik, “*baina Julian Ariñok gorde eta ereserki moduan erabiltzea proposatu zuen*”.

Urte batzuk beranduago, 1936ko abuztuan, “*Bilboko Iturribide kaleko Pa-*

Jose Maria Garate Azkarraga getxoztarrak idatzi zuen “Eusko gudariak”

tronatuan gudarien konpainia bat osatuta zegoen, batzuk mendigoizaleak”. Bediaga kapitaina buru, Kortabarria izena ipini zioten konpainiari: “*Esaten da Bediagak bertako gudari biri entzun ziela ‘Eusko gudariak’ abesten eta hainbeste gustuko izan zuen konpainiaren ereserki gisa proposatu zuela*”. Horrela, hilabete geroago zabal-tzen hasi zen ereserki moduan, Zirardamendiko gudan; eta apurka-apurka hedatuz, gaur arte iraun du. ○

Iñaki Goiogana Mendiguren > erakusketaren arduraduna

“Zirardamendiko frontean frankistei aurre eginda Eusko Jaurlaritza sortu zen; hori erakusten da hemen”

Sabino Arana Fundazioko kide da Iñaki Goiogana Mendiguren, artxibategian lan egiten du, gaiari buruz hainbat liburu eta artikulu idatzi ditu, eta berak kudeatu du erakusketaren antolaketa. Beragaz berba apur bat egiteko aukerarik ezin genuen galdu.

—1936ko gerrari buruzko erakusketa da, zehazki zer jasotzen du?

—1936ko irailaren 24an Zirardamen-

din (Elgoibarren) gertatu zen guda baten gainekoa da baina, hori arrazoi modura hartuta, ondoren gertatu zena jasotzen du. Uda hartan hasi zen gerra eta altxatutako tropak irailaren 21ean iritsi ziren Elgoibarrera, Gipuzkoa osoa hartuta. Uste zuten aste gutxian Bilbo ere hartuko zutelako, baina ez zen horrela gertatu, Zirardamendin eta fronte osoan (hasi Ondarroa-Lekeitiotik eta Elgetaraino) frankistei aurre egin zitelako.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritza sortu zen eta urriaren 8an Agirre Lehendakariak kargua zin egin zuen Gernikan; hori dena erakutsi nahi da, ez anekdota edo bataila hutsa.

—Formatoa berezia da, ezta? Berbarako, lubaki batetik sartu behar da bisitaria erakusketara?

—Muina hamar panel dira, eta horietan kontatzen da historia eta gerra, orokorrean; gerra ez da-eta frontea bakarrik.

Gainera, erakusketa girotu dugu, bitrinak sartu ditugu garai hartako objektuekin, hau da: armak, karnetak, argazkiak, eskuorriak, e.a. Bestalde, mendian aurkitu diren hobi komun horietako bat berregin dugu. Izan ere, gerrako protagonistak dira interesatzen zaizkigunak: frontean hildakoak, herrian bombardaketak jasan zituztenak, erbestera joandakoak, e.a.

—Dokumentala ere erakutsiko duzue?

—Erakusketa amaituta denboran iraungo zuen beste zer edo zer egin nahi genuen: dokumentala eta liburua prestatu ditugu. Dokumentala gerrako berregitea da.

—Goazen gudari danok izenburu adierazgarria, zergatik aukeratu duzue?

—Batailan parte hartu zuen konpainia

batek zabaldu zuelako orduantxe “Eusko gudariak” kanta, haren zatia da. Eta ondo erakusten du guk erakutsi nahi genuena: ikurriñaren atzetik goazen, baina ikur horren barnean sartzen direla danak: hasi gorrietatik eta zurietarainoko dauden guztiak; herri guztia batzeko ikur bat dela.

—Eta zergatik joan erakusketara; zer esango zenieke erandioztarrei bisitatzerako anima daitezten?

—Jakinmina daukatenek nahia asetzeko lekua izango delako. Gero, jakin barik, gauza ederra delako. Inori ez zaio damutuko ikustera joan izana. Eta ez bakarrik historia moduan ezagutzeko, baizik eta bizipen moduan. Iragana da, bai, baina gaur egungo gauza bat ere bada; ez dago



besterik albistegietan. Guk, erakusketan, garai hartako egunkariak eta argazkiak ipini ditugu. Helburua da erakustea gure herrian gertatutako bizipen batzuk, baina gaur egun ere beste leku batzuetan gerta daitezkeenak, eta gertatzen ari direnak ere bai. ○



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Dardarrak, distirak ordezkatzuz

Donostiako **Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Asteak** ia prest du egitaraua



Info+: www.donostiakultura.com/terror/2014

Donostiako Zinemaldiaren argi distiratsua ahulduz doaz... Udak udagoienari leku egin dion legez, bestelako giro bat sortzeaz da, dardarak nagusituko diren esparruak jomuga: Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea egitaraua ia prest dago. XXV. ekitaldia beteko du aurten Asteak, "urteko genero-film onenek, erakusketek eta bestelako jarduerak" osatzen dute eskaintza. Urriaren 25ean hasi eta Domu Santu egunera arte Antzoki Zaharra fantasiak eta giro beldurgarriak jantziko da.

Aurten zilarrezko ezteiak betetzen dituela eta, *24 aste geroago* izena eman diote Jaialdiari, eta izen bereko zikloan, atzera begira jarri eta ibilbide osoan erakutsi dituen film esanguratsuenak berriro eskainiko dituzte. Sail Ofizialean lehiatuko diren zenbait film luzeren berri ere ezagutzera eman dute: *Dead Snow 2: Red vs. Dead / Dod Sno 2* (Tommy Wirkola, 2014; Norvegia-Islandia), *The Guest* (Adam Wingard, 2014; AEB),

The Last Days on Mars (Ruairi Robinson, 2014; Erresuma Batua-Irlanda); *The Man in the Orange Jacket* (Aik Karapetian, 2014; Letonia-Estonia), *Puzzle/Pazuru* (Eisuke Naito, 2014; Japonia); *[REC]4* (Jaume Balagueró, 2014; Espainia), *Shock Value: The Movie. How Dan O'Bannon and Some USC Outsiders Hel-*

«Urri amaieran Donostiako Antzoki Zaharrak eta inguruek hartuko dute Astea»

ped Invent Modern Horror (Dino Everett kontserbatzaileak USC-eko (University of Southern California) ikasleek egindako zenbait fim labur batu ditu, 2014; AEB), *V/H/S Viral* (Justin Benson & Aaron Moorhead, Gregg Bishop, Marcel Sarmiento, Nacho Vigalondo, 2014; AEB), *What We Do in the Shadows* (Jemaine Clement, Taika Waititi, 2014; Zeelanda Berria) eta *Zombeavers* (Jordan Rubin, 2014; AEB). ○

Kosta Festeko doinuak

Natura, surfa eta musika ardatz dituen ekimena **hilaren 24tik 28ra** izango da



Udaletxe plazako karpan izango dira kontzertuak. Info+: www.sopelakostafest.com

Lehenengoz antolatu duten jaialdiak "hiru osagai nagusi ditu: natura eta gure kostaldearen babesa, surfarekin lotutako jarduerak eta izen handiko kontzertuak". Surf-zinema emanaldiak, azoka, parapente hegaldien zozketa, surf ikastaroak, surf ola ezberdinak probatzeko aukera eta erakusketak, hareazko eskultura baten erakusketa, tai txi tailerra, hegaztien behaketarako irteera, surf-argazkigintzako ikastaroa, Desioak Zerura ekitaldia (argiontzia aieratzea) eta beste zenbait ekitaldiz gainera, musika-eskaintzak leku berezia du Kosta Festen: hilaren 25eko Surf Plaza ekitaldian (19:30)

The Longboards Big Wave Surf Band taldeak joko du, amaieran DJak: The Beach Marshalls eta De la Central del Sabor; hilaren 26an (19:30) itsas-kantak abestuko dituzte kalerik kale, gero Yellow Big Machine, Hey Mr Neken, Belako, Zea Maysen kontzertuak (21:00) izango dira; hilaren 27an (21:00) Smile, Los Coronas, Amparo Sanchez (Amparanoia) eta Clarisse taldeen txanda da, eta hilaren 28an (19:30) apo lasterkaria gaitzat hartuko duen bertso-saioaren (Fredri Paia eta Ekaitz Larrazabal "Katxo") ondoren, apoa ezagutzeko ibilbidea egingo dute Gibelurdiñek musika-taldea lagun. ○


diskoak

Managaitz 7"
Managaitz
Autoekoizpena




Orain dela bizpahiru urte Zarautzen sortutako taldeak 7 hazbeteko EPean (zortzi minutu eskaseko iraupena) jaso ditu lau kantu labur: A aldean "Beldurrik ez" eta "Bidezidor batetik"; B aldean, "Abiada bizian" eta "Hodi katodikoa". Hardcore punk estiloko doinuak jorritzen dituen taldeak, halaber, laster 8 abestiko CDa argitaratuko duela iragarri du.

Kora izpiak
Enkora
Txalapart



Azken sei urteotako bilaketaren eta sormenaren emaitza 10 kantuko lana, Enkora ezizenaren atzean dagoen Eneko Larrañagak azaldu duenez. Afrikako harparen, koraren, bere ikuspegi propioa eskaintzen du lan honetan musikari zestoarrak, doinu afrikarrak eta berak konposatutako euskarazko melodiak uztartzen ditu.

Amairu dok
Norzzone
Taupaka



Rap/dubstep/trap erritmoak nagusi, bederatzia abestiz osatutako lana aurkeztu du Norzzonek. "Ez dok amairu" garaiko abangoardiako mugimenduari egindako gorazarre umila dela azaldu du, eraberritze+tradizio kontzeptua da nagusi diseinuan: euskara da zuhaitza, euskara da enborra, eta enbor hori binilozko disko birziklatu da...

kontzertua > Antonio Zambujo

Aurten beteko ditu Kultur Leioak 10 urte, eta hamaika ekitaldi iragarri ditu ospatzeko. Halaber, badira bestelako zikloak, berbarako Musika Arimarekin. Horren barruan, Portugalgo gaur egungo gizonezko ahots esanguratsuenetakoa den Antonio Zambujoren kontzertua izango da; abeslari eta musikariak jazz, bossanova, morna, chorinho eta Alentejoko kanten doinuak fadoagaz buztartzen ditu, berezko estiloa sortuz. Beragan, fadoak egiazkoagoa ematen du. Beragaz batera joko dute Luis Guerreiro (Portugalgo gitara), Jon Luz (cavaquinho, gitara), Jose Miguel Conde (klarineteak), eta Ricardo Cruzek (kontrabaxua eta zuzendaritza musikala). Emanaldia urriaren 3an izango da, gaueko 21:00etan ipini dute hitzordua, eta dagoeneko sarrerak 15 euroan salgai daude.

Info+: www.kulturleioa.com

diskoa > Guda Dantza

Estudioko lehenengo lana grabatzen ari da Algorta eta Leioako musikari gazteek osatutako Guda Dantza taldea. Taupaka elkartetik jakinarazi dutenez, diskoa Kike Moraren gidaritzapean grabatzen dabilta, Begoñako KMT estudioan, bateria ostera, Urduñako Jabi Palaciosen Konjuntibitis estudioan grabatuko dute. Ska doinu dantzagarriak eskaini ohi dituen taldearen 10 kantuk osatuko duen lehenengo lana Taupakaren 18. argitalpena izango da, eta iragarri dutenez urriaren 10erako kalean egingo da.

REBEL TATTOO

Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Madelon sariak

Gazteei begirako gay, lesbiana, bisexual edo transexualei buruzko **lehiaketa** zabalik

EHGAMek (Euskal Herriko Les-Gay Askapen mugimendua) antolatzen duen Madelon Sariak lehiaketara lanak bidaltzeko epea zabalik dago urriaren 31ra arte. Gazteei zuzendutako literatura sariketarik adinaren arabera bi kategoriatan banatzen dira: bata, 14-17 urteko bitartekoena, 18-25 urte bitartekoena bestea. Idazlanetarako gaia librea bada ere, "gay, lesbiana, bisexual edo transexualen gainekoa izan beharko du". Luzerari dagokionez, aurkeztuko diren 5 eta 10 orrialde bitarteko kontakizun laburrak izan beharko dute (espazio bikoitzean, Times New Roman letra estiloaren 12 neurrian). Lanak euskaraz edo gaztelaniaz idatz daitezke, eta jasotako bi lan onenek jasoko dute saria:

**«Urriaren 31ra arte
aurkez daitezke
idazlanak»**

lehenengoak, 300 euro eta diploma, eta bigarrenak 100 euro eta diploma.

Lanak aurkezteko betebeharrak dagoakionez, antolatzaileek hurrengo eskakizunak egin dituzte: idazlanaren hiru ale paperean eta bat CDan aurkeztu beharko dira, azalean lanaren izenburua eta egilearen izenburua bakarrik adieraziz; norbera-



Sari-banaketa abenduaren 10ean izango da

ren datuak jasotzen dituen idatzia beste gutunazal batean erantsi beharko da; eta ez dituzte onartuko dagoeneko saririk jasotzen duten lanak. Hori dena, hurrengo helbidera bidaliko beharko dute partehartzaileek: EHGAM, (Gaztegun-CRAJ, Anoeta 28, Txuri Urdin, 20014 Donostia.

Hala bada, lana jaso eta epaimahaiak aztertu ostean, Madelon sariak jasoko dituztenen ebazpena eta, horrenbestez, sari-banaketa, abenduaren 10erako iragarri dute, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunerako, hain zuzen ere. ○

Info+: www.ehgam.org
ehgam@yahoo.com 667 435 570

liburuak



Gerra Txikia
Lander Garro
Susa

"80. hamarkadako Euskal Herria. Errefuxiatua da Xabi Ugarteren aita. Amak hiru seme-alabak trenean sartu ditu, muga igaro, aitarengana joateko Hendaia, zalantza beteta, ohiz besteko lekuan bizi beharko dute aurrerantzean..."
Garrok Xabi Ugarte umearen begirada darabil kontaeran...




Argiaren alaba
Yolanda Arrieta
Autoekoizpena

Umezaroa eta gaztaroa Markinan emon zituen Bizenta Mogel Elgezabal (Azkoitia, 1782 - Abando, 1854) idazlearen bizitzara eta lanera hurbilduko gaitu lan honek, datu errealean oinarritutako fikziozko istorioak harikatzan ditu mendeak, sorkuntza, idazketa e.a.

[kirola]

Asier eta Ibon Larrinaga > boxealariak

"Boxeoak asko hezten gaitu. Hasieratik pertsona modura heltzen asko laguntzen zaitu"



Asier eta Ibon Larrinaga anaia erromotarrek boxeo dute bizi eredu

Larrinaga anaiek egunero bizi dute boxeo, ikasketak, lana eta entrenamenduak ahal duten neurrian tartekatuz. Boxeo; kirola izateaz gain, bizi eredu bat da bi anaientzat, "diziiplina, sakrifizioa eta uneoro hobetzeko grina ematen digu". Oso pozik agertzen dira lortutako garai-penakaz, baina oraindik ere, emoten du asko dutela erakusteko.

—Zerk bultzatu zintuzten boxeatzera?

I.L.—Hasiera batean futboleko aritzen nintzen, baina partidu batean tibia eta peronea apurtu nituen. Osatzen nengoela, Erandioko kiroldegian boxeo ematen hasi ziren, eta onera bueltatzean probatzen animatu ginen lagun bat eta biok. Hasiera batean futboleko jarrailu nuen, boxeo eta futbola tartekatzen, baina azkenean boxeo aukeratu nuen, gehiago betetzen ninduelako. Orduetik bost-sei urte igaro dira. A.L.—Anaia boxeoan ikusten nuen, eta behin, Erromon gimnasio bat ireki zutela jakinarazi zidan lagun batek. Momentu horretan ez nuen kirolik egiten, beraz, ani-

matu eta entrenatzen hasi nintzen. Urte eta erdi pasa da, eta oso motibatuta nago. —Ibilbide laburra eroan arren, emaitza oso onak lortu dituzue...

I.L.—Bai, zortea izan dugu. Hiru urte daramatzat lehiatzen. 41 borrokatan parte hartu dut jada, eta horietatik 30 bat irabazi ditut. Birritan irabazi dut Bizkaiko txapelketa, behin Euskadikoa, eta bi aldiz

«Egun, boxeo kultura bat dago herrian, eta horrek asko laguntzen du»

parte hartu dut Espainiakoan. Horretan, ezin izan dut titulua eskuratu. Azkenengoa, ebaki bat izan nuen, eta ezin izan nuen jarrailu. Dominaren bat irabazteko aukera nuen, baina arazo horren ondorioz ezin. Orain, Bizkaiko hirugarren titulua eskuratzen saiatuko naiz.

A.L.—Zazpi hilabetetan zazpi borrokatan parte hartu, eta horietatik bost irabazi ditut. Joan den hilabetean, Erromoko ospakizun batean parte hartu nuen eta Boxeolari Finenaren txapela eskuratu nuen. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizoi moda




350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak "Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik" proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikoMitologia.com webgunera jo.

Lamia

Belarren artean sartuta,
arnasa hartu barik geratzen naiz
ikusten zaitudanean.

Nola izan zaitezke hain ederra?
Zure ileak distirutzen du,
ibaiaren ertzean eserita,
zure burua orrazten duzunean.

Zure kantuek mozkortzen naute,
ezpainen zaporea dastatzeko
edozein gauza egiteko gai nauzu.

Nori inporta zaio
hanka ezberdinak izatea?
Zugana joango naiz gaur,
nire maitasuna adieraztera.

Lamia. Ilustrazioa: Daniel Castello



Jon Lazkano > euskara-zinegotzia

“Euskaltzaleen sarea eta egiturak
sortzea da gure helburuetako bat”

**Jon Lazkano (Leioa, 1963) filoso-
fian lizentziaduna da, eta proiektu
kudeaketari buruzko unibertsitate
mailako aditu-ikasketak egin berri
ditu. Urteak eman ditu irakaskun-
tzan, eta aitortzen du asko ikasi
duela horrela. Hala ere, politika
munduan murgiltzea hautatu zuen.
Bertan, apurka-apurka hazi egin
dela azaldu du.**

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak,
indarguneak eta erronkak Leioan?

—2013-17 epealdiko Euskara Biziberri-
tzeko Plana prestatzeko asmoz, Leioako
elkarte eta eragileakaz lanketa egin eta ber-
tan hausnarketa egin genuen euskararen
hedapenerako indargune eta ahulezien in-
guruan. Familiek euskara hizkuntza aka-
demikotzat hartzen dute, erdaldunek ez
dute jarrera proaktibo nahikorik eta gazte-
laniara jotzen dute, hainbat kasutan. Hala
ere, euskaldunek atxikimendu handia du-
te eta D erudian ume-kopuru handia ma-
trikulatzen dute. Askok ez diote balio e-
rantsirik aitortzen euskarari, eta uste dute
zaila dela euskara ikastea, nahiz eta hori i-
kasteko aukera asko egon. Irakaskuntzan,
euskara oso akademizatuta dago eta ere-
mu informaletan gaztelania da nagusi as-
kotan, baina D ereduak prestigio handia
du. Aisialdi-eskaintzan eta kirolean, eus-
kararen erabilera ez dago araututa eta gaz-
telaniak presentzia handia du; baina,
komunikazioa ele bietan egiten dugu eta
instalazioetako paisaia linguistiko gehiena
elebiduna da.

—Hori lortzeko egitasmorik baduzue?

—Gure helburu nagusiak ondokoak dira:
euskaltzale-sarea eta egiturak sortzea, eus-
kararen erabilera areagotzea esparru guz-
tietan eta herritarrak euskararen egoeraz
sentsibilizatzea eta motibazioa lantzea.



Jon Lazkano, Leioako zinegotzia

—Eta erabilerari dagokionez, baduzue
ekimenik edo proiekturik martxan?

—Gurasoei umeakaz jolas eta kantuan a-
ritzeko materiala bidaltzen diegu. Masti-
txu Udal Euskaltegiak ikastaro sorta han-
dia eskaintzen du eta Udalak euskara ikas-
teko diru-laguntzak eskaintzen ditu. Ira-
kaskuntzan, Leioako antzinako tradizioez
egindako ikerketa-lan baten materiala es-

**“Ama-hizkuntza euskara
duenak, helduaroan eus-
kara gehiago erabiltzeko
joera izango du”**

kaintzeko asmoa dugu eta euskarazko jo-
las-jarduerak eskainiko zaizkie ikasleei. Ai-
sialdian, “Berbaldun” proiektua abiatuko
dugu euskaraz aritzeko ohitura berriak
sortzeko, euskara sustatzen duten kirol eta
bestelako elkartei diru laguntzak emango
dizkiegu, eta kulturari “Maratila” izeneko
ikuskitz-unibertsitate programatu dugu. ○

Leioa

Biztanle kopurua
EUSTATEk bi urtetik gorako
biztanleak hartzen ditu:

2006an, 29.018 biztanle
2011n, 30.447 biztanle

Euskaldunak
8.030 euskaldun, %27,6 (2006)
8.707 euskaldun, %28,5 (2011)

ia-euskaldunak
7.657 ia-euskaldun, %26,3
(2006)

9.371 ia-euskaldun, %30,7
(2011)

Erabilera datuak
2013. urtean egindako
neurketaren arabera, %13

Harremanetarako:
946 072 576

[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos



C/Iturbixi, 13
48620 Plentzia
Telf: 94.677.31.28
www.cafebarzuazu.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



Bat batean eginda japoniar era tradizionalan
www.fugulasarenas.com
Evaristo Churrua Kaia 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa



GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



Menu ederra itsasoari begira
Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com



Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Ogitarteko min-mina

Alegrantziaz esnatzeko pintxoa



Pintxoa Sopelako Lurren tabernan dasta daiteke

Sopelako udaletxearen atzeko Ripa katean, Lurren taberna aurkitu dugu, goizean goiz gosaltzeko toki ezin hobea. Inguruko bestelako tabernak bezala, honek gosari goxo-goxoak eskaintzen ditu: kafesnea, patata tortilla, ogitartekoak... Hala ere, bertokoek diotenez, Errioxako "de la Vera" alegriekin egindako ogitartekoa gosaltzea bezalakorik ez dago eguna alegrantziaz hasteko. Hortaz, modu horretan esnatu nahi baduzue, adi! Iratzargailu jangarri hori zelan egiten den erakutsiko baitugu oraingoan.

Lehenengo eta behin, moldeko bi ogi txigortuko ditugu. Ondoren, oinarrian maionesa jarriko dugu. Jarraian letxuga, euskolabel tomatearen xerra bat eta pikillo piper bat gehituko diogu. Ondoren,

hegaluzea, frijitutako tomategaz eta Errioxako "de la Vera" alegriagaz nahastuko ditugu. Hala, lortutako masa hori aurrekoaren gainean botako dugu eta moldeko bigarren ogia jarriko dugu tapa moduan. Horren gainean ere maionesa jarriko dugu, ondoren urdaiazpiko egosi zati bat jartzeko. Azkenik, urdaiazpikoaren gainean ere maionesa botako diogu, ogitartekoa lehortu ez dadin.

Honegaz guztiagaz, min-mina den ogitartekoa izango dugu goizetarako, kafesne goxo bategaz ezin hobeto esnatzeko. Egun on! o

Osagaiak: moldeko ogia, maionesa, hegaluzea, tomate frijitua, Errioxako "de la Vera" alegria, pikillo piperra, urdaiazpiko egosia, uhaza eta euskolabel tomate.



zure
publizitatea
hemen!
94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz




MONIE JAIA 1
48993 Getxo (BIZKAIA)
croissanterie-getxo.blogspot.com 94 460 86 48



Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA



URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Liburariak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

UKnatura
2013-2014 KURISOA
www.uknatura.org
692705471 / 646742241

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Gauza on danak amaitzen ei dira eta aspaldi amaitu zitzaizkizun opor egunak. Lanera buelta gogorra izan da, baina berehala hartuko duzu martxa, ez arduratu eta animo!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Hondartzara joango zara sasoiako azken bainua hartzera, baina marrazo bat dabil inguruan. Halere, uretan sartuko zara eta ikusi ere egingo duzu: ziztu bizian aterako zara ia-ia kaka eginda!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Irailagaz batera klasera bueltatu zara, urteroko matraka: gelakideek udan zer egin duzuen elkarri kontatuko diozue, baina oharatu orduko... zast! Lehen azterketa gainean.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Oporretatik bueltatu zarenetik burua galduta zabilta, zein hondartzatan utzi zenuen? Bertan ezagutuko pertsonari gutunak idatzen dizkiozu egunero baina, hark erantzun?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Jairik jai eta parrandaz parranda ibili zara uda osoa. Oporretan ez zara kanpora joan eta Uribe Kostan lotu zara. Halere, primeran pasatu duzu zara. Halere, primeran pasatu duzu, hain da polita gure eskualdea!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Sanferminetatik Bilboko Aste Nagusira, santu txikia, marijaia, eta zu! Jaietako izarra izan zara baina, udagoiena iritsi eta itzaliko zara, edo lozorroan sartu, hurrengo uda arte...

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Irailerako utzi dituzu oporrak, lagunak lanean daudenean eta bidaia askoz ere merkeagoak direnean: a zer azkarra! Pena bidaia bakarrik egin beharra, konpainiarik ez duzu-eta lortu...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Egunak joan, egunak etorri, eta ia ahaztu zara udako maitaleagaz. Halakoa zara-eta, askea. Laster ezagutuko duzu udagoieneko maitalea, eta gero negukoa, eta udabarrikoa...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Parkeko moda da orain puxtarrietan jolastea, baina zuk gustukoago dituzu "iturriak". Ez tematu eta hartu orain puxtarriak; laster moda pasa eta lortuko duzu lagunak lehengora ekartzera.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Lore sorta ederra topatuko duzu etxeko atarian zure urtebetetzean; ez dakizu nork utzi dituen, hori da misterioa! Lagunen bat izango zen? Edo, agian, lorak ez ziren zuretzat izango...

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Errepideko bizikletagaz mendian sartu eta gupilak zulatuko dituzu, biak! Hobe duzu lehenbailehen konpontzea, amarena da eta aspaldi ohartarazi zizun nondik ibili eta nondik ez.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Eguneroko bizimoduagaz nazkatuta atzerria joango zara hilabete batzuetarako, bakar-bakarrik. Batzuetan hobe izaten da horrela: lagun barriak egitea bikaina eta osasungarria da!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan





Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Sudoku txiki hauetan irudiek hartu dute zenbakiaren lekua. Gogoan har egizu irudi guztiek, laurek, azaldu behar dutela zutabe, lerro eta azpilauki bakoitzean.



gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Irailari zor... zer da bizkai-eraz 'ira' deritzoguna?

- **Itsas-belarra**
- **Garoa, iratzea**
- **Haserrea edo hira**

La Gusana liburudenda **SARIA**

Tellagorri plaza, Algorta
Tf: 94 491 14 12

lagusana

> Aurrekoaren erantzuna: Asturias

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf: 944 047 420
oinutsik@euskalnet.net



> Aurrekoaren erantzuna: Arrautza

> Irabazlea: **Nuria Marrufo***

*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



ANGEL FIDALGOK UTZITAKO ARGAZKIA

URDULIZKO KAKARRALDO ERRUGBI TALDEA, 1981

Orduko Bizkaiko Ligako partida zen, Derioko seminarioko zelaian lehiatu ziren Urdulizko Kakarraldo futbol taldea eta Mungia-koa; urduliztarrak galdu ei zuten. Ordutik urte gitxira desagertu zen Urdulizko Kakarraldo taldea. Angel Fidalgok kontatu digunez, oraintsu Plentziako Karraldo taldeko 35. urteurrena ospatu dute, eta Eduardo Figalگو omendu dute hainbat errugbi taldetako sortzaile izateagatik. Barriro gogora ekarri ei dute aspaldiko auzia: Kakarraldo izenaren jabetza nork zuen? Urduliztarrek diotenez, Kakarraldo izena zuen gerraosteko Urdulizko futbol talde batek, eta hortik hartu zuela errugbikoak deitura. Kontua da, 1979 alde- ra Plentzian entrenatzen zuela taldeak, eta Plentziako zein Urdulizko mutilek osatzen zuten. *“Herrien arteko tira-birak direla eta, taldea bitan banatu zen: Plentziako Kakarraldo eta Urdulizko Kakarraldo. Baina izen-emotea egitean, Federazioak esan zigun ez zuela onartuko izen bereko bi... Eta Plentziakoek zelanbaiteko sortze-akta aurkeztu zuten, zalantzazkoa oso...”*, akordatzen da Fidalgo. ○

Zutunik: Josu Butron, Pablo Perez “Blito”, “Rizos”, ?, Demetrio, Manu Zuazua, Julen Unibaso “Galdu” eta ? Retegi “Txo”.

Makurtuta: Roberto Unibaso, Imanol Maguregi, ?, Eduardo Fidalgo “Aldeano”, Julen Bilbao “Amuma” eta Angel Toquero.

XABI HOO > Enkore taldea

“Neuk musika bizi barik, musikak bizi nau ni”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **Maikomachines**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Ni neu.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez litzaidake batere inportako “*The Big Lebowski*” filmeko Dude izatea. Barre piloa egiten dut pelikula ikusten dudana bakoitzean, eta benetan iruditzen zait pertsonaia xelebrea, bizitzari so era bitxian.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Nire gitarra akustikoa. Ahal dudana guztietan bidaietan izaten dudana laguna da. Nahiz eta pertsona oso soziala izan, askotan ez dut besterik behar: itsasoa, zeruertza, eguzki sarrera perfektua eta pare bat akorde.

Oihukatu duzun azken aldia?

Aurreko zapatuan, Lezaman, Enkoreren 100. Kontzertua ospatzen genuela. “*Entzun gaitzaten, ozen oihukatu!*”.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Uribe Kosta. Hasiera batean Durangon eta gero Bilbon bizi izan naizen arren, eskualdekoa sentitzen naiz hein handi batean: Aitite eta amama, Algortako lagunak, Sopelako olatuak, Leioako sanjuanak, Barrikako hondartzako aparkalekua...

Non gura zenuke kontzertu bat emon. Zergatik?

Bada, ez dugu sekula Kalera Rock, Hatortxu Rock eta hauen tankerako festibaletan jo. Zirraragarria izan behar du kontzertu bat ematea jakinda zure akordeak jendea dantzarazteaz haratago doazela! Hala ere, argi dago, gurean, gizarteak aurrera pausoak eman behar dituela oraindik. Enkore ez da horrelako festibaletan onartua izango bertan antzinako moldeei eusten jarraitzen dugun bitartean.

Kontzertuak emateko lekuri onena?

Edozein leku ona izan daiteke giroa ona bada, gustura nabil festibal handietan eta areto txikietan.

LABURREAN—Txiki txikitatik musikaren munduan murgilduta bizi izan da Xabier Hoo (Bilbo, 1989). Oso txikia zela gurasoek kontserbatorioan apuntatu zuten, eta piano-ikasketak burutu zituen bertan, “*gure etxean musika asko entzun izan da betidanik, nik uste hortik datorkidala zaletasuna*”. Egun, Enkore taldeko abeslari eta gitarra-jotzaile dugu. Bost urte igaro dira txikitatik ezagutzen zituen beste hiru lagunegaz taldea sortu zuenetik, eta igarotako ibilbidea “*frenetiko*” izan dela aitortzen du abeslariak: “*100 kontzertutik gora eman ditugu, eta atzera begira egiten dugunean bertigoa ematen du*”. Momentu honetan, Enkore taldearen asmoa ahalik eta gehien jotzea dela azaldu du Hook, “*ahalik eta gehien ikasteko*”.

91 506 53 58 / www.renault.es

RENAULT ZOE. ELEKTRIKOA %100EAN
IZAN GIDARI ELEKTRIKOA

7.900€tik hasita*
SALNEURRI ESKLUSIBOA EUSKADIN

PROBATU ETA ULERTUKO DUZU
CO₂-aren zero emisio erabileran, higitzen diren piezetan izan ezik.

*Euskadin Gomentatutako PSpa modelo honetarako: Renault ZOE Life. Barne daude BE2a, garraioa, sustapenak, PIVE-6 plana, Movele 2014 programa eta Garraio eta Mugikortasun Efizienteko Inbertsioetarako Laguntzen Euskadiko Programa (Jauritzaileen laguntzarik gabeko PSpa: 21.250€), Eskaintza partikularrenzat eta autonomoentzat da, PIVE-6 planaren, Movele 2014 programaren eta Garraio eta Mugikortasun Efizienteko Inbertsioetarako Laguntzen Euskadiko Programaren baldintzen arabera. Irudiko modelo: Renault ZOE Zen, 17"-ko hagunak eta pintura metalizatu berezia dituena. Euskadin gomentatutako PSpa: 10.400€. Barne daude BE2a, garraioa, PIVE-6 plana, Movele 2014 programa eta Garraio eta Mugikortasun Efizienteko Inbertsioetarako Laguntzen Euskadiko Programa (Jauritzaileen laguntzarik gabeko PSpa: 23.8250€). PSpak ez du barne hartzen bateriaren akonkordia. Hura OVERLEASEren formatuz behar da, ezarritako baldintza eta prezioetan. Eskaintza hau 2014/09/01etik 2014/10/31ra bitarte egindako eskaerentzat da.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

DRIVE THE CHANGE
RENAULT

Aurten ere euskarari heldu euskara

Maila guztiak ordutegi desberdinetan
EGA larunbat goizetan



JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA
Algortako Etorbidea 104 zbk
48990 Algorta - GETXO
Tif. 94 460 66 71

HABE-k diruz lagunduta

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

XXXII. Getxoko Antzerki Jardunaldiak

Jornadas de Teatro de Getxo

2014

Urria / Octubre



Algortako San Nikolas plaza
Plaza San Nicolás de Algorta


Andrés Isasi Musika Eskola
Escuela de Música Andrés Isasi

13:00. CARNEROS Organik (testu gabe / sin texto)	13:15. Pa.Ti.N Helena Golab	20:00. PODOLOGUAK Txintxeta (euskaraz)	11 larunbata sábado
13:00. D.J. PORRU Kiliklon (euskaraz)	18:00. OPERA ABESLARIA Deabru Beltzak (euskaraz)	20:00. CABARET CHIHUAHUA Teatro Mutante (castellano)	12 igandea domingo
13:00. MENDIZALEAK Tomaxen Abenturak (euskaraz)	18:00. SUTONDOAN A-Teatral (euskaraz)		18 larunbata sábado
13:00. ZOOZOOM Markeliñe (euskaraz)			19 igandea domingo

+info:
94 491 40 80
kulturetxea@getxo.net
www.getxo.net



Horrez gain, igandeetan / Además, cada domingo



ANTZERKI ARINA

Algortako Kultur Etxean
(Villanueva, 43)

<http://teatrobrevetgetxo.wix.com/antzerkiarinagetxo>

TEATRO BREVE

en el Aula de Cultura
de Algorta (Villanueva, 43)